


TOKIKOM

2023ko maiatza | 236. zenbakia

aikor!

txorierriko aldizkaria



**Udal eta foru
hauteskundeak**



Izan Aikorlagun!

Lagatzu Eguna

Euskal Jaia 2023

Ekainak 24

12:00 CARMEN MENDIGUREN PASTORALA
(Zamudioko herritarren eskutik)

13:30 KALEJIRA
Bertoko eta Kantareluxen eskutik

15:00 HERRI BAZKARIA
Agirre Plazan

20€ nagusientzat
15 € umeentzat
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai
Erosteke azken eguna ekainaren 20a

17:00 TABERNA IBILTARIA
UMEEN JOKUAK: ZURESKU
Egurrezko jolas tradizionalak

20:00 ERROMERIA
Gora Herria taldeagaz

Animatu eta parte hartu koadrileagaz.
Atara armairutik euskal jantziak!

Zamudioko talde eta herritarren ezinbesteko laguntzea euki dogu.

-  4 Iritziak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  12 Taldeak... Dana gimnastika kluba
-  14 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  16 Hileko argazkia... Derio, gurutze-bidea
-  17 Udal hauteskundeak
-  26 Zamudioko Pazko jaiak
-  30 Menditik patxadaz... Kastroak
-  32 Emaus Fundazioa
-  33 Herbarioa... Kailu-belarra
-  34 Teknologia... Soziolinguistika-materiala
-  35 Ekologia... Lezamako baso publikoak
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Maketatzailea eta erredaktorea: Gaizka Eguzkitza

Kolaboratzaileak: Gaizka peñafiel, Maitane Apodaka, Jose Angel Mentxaka, Iñaki Olabarrieta, Xabier Diaz, Alex Albarrán, Joanes Camara eta @txiribita_mundi

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Amaia Lekue (688 782 642)

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Azaleko argazkia: Parker Johnson (www.unsplash.com)



Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik

Lodia naiz, badakit

Urte pasatxo daramat nire burua zaintzen, eguneroko estresak uzten didan neurrian behintzat. Hilabete hauetan jende andana etorri zait argalago eta galantago ikusten nauela esanez... Argal-eder konexio hori zein barneratuta duen gizarte honek, tamalez. Egia esan, azken boladan hobeto sentitzen naiz, nahiz eta oraindik helmugatik urrun egon. Baina jende gehienaren ustearen kontra, ez nago pozik itxura kontu batengatik; osasun eta bizi-kalitatearengatik baizik. Gogorra da jatetxera joan eta aulkian ez kabitzea, 100 metro ibili eta arnasa faltatzea... Lehen munduko arazo hutsalak bai, baina mingarriak. Horrelako momentuetan, gainera, lotsa eta errua gehitzen dira gure zamen motxilara, harri gehiago bizkar minduan.

Ez dakit prozesu honi noiz arte helduko diodan, gainpisuarekin borrokan bizitza osoan aritu ondoren badakidalako bideak gorabehera asko dituela. Alabaina, ikasi dut besteen gorputzen

eta ohituren inguruko iritziek inoiz gutxitan laguntzen dutela. Batetik, ez dakigulako pertsona horien barnean gertatzen ari dena, eta bestetik, gure hitzek besteengan neurritz kanpoko eragina izan dezaketelako. Borondate onez egiten dugu konplutua gehienok, baina beti bada jakintsuren bat 'zure osasunaren alde' bere iritzia emateko behar aseezina duena. Lodi bat ikustean keinuak eta begirada inkisidoreak egiten dituzten berberak dira. Bada, aizu, nik ere ikusten ditut bestelako hartueman toxikoak tabakoarekin edo alkoholarekin, esaterako. Gai hori, ordea, inork gutxi ekarri nahi du erdigunera, badakigulako sentsiblea dela. Soberako kiloak aldiz bai, etenik gabe mahai gainean, zorientasunaren giltza gramotan neurtuko balitz bezala.

Sare sozial eta irudiaren garaiotan gorputz normatiboaren adorazioak hartu duen garrantziak kezkatzen nau, askoren osasun mentala horren ondorioz



GAIZKA PEÑAFIEL
Irakaslea eta sortzailea

usteltzen ari delako. Ni zorioneko naiz, inoiz ez naizelako nire gorputzarengatik baztertuta sentitu; baina badakit hein handi batean gizonezkoa naizelako ekidin dudala. Biziki sufritzen duten horiengatik eta etorriko direnengatik momentua da desikasteko. Izan gaitetzen enpatikoago elkarrekin; badakit lodia naizela: badut ispilua etxean. Ez esan erraza balitz bezala irtenbidea gaizki jateari uztea dela. Inbertitu denbora nigan, galdetu nola nagoen... Hori da zutaz gehien inportatzen zaidana niri.

Duela urte batzuk, denbora luzez ikusiko ez nuen norbait agurtzean, 'agur' esan ordez 'gero arte' esaten hasi nintzen. Nork bere buruari bada ere, lasaitasuna ematen digu pertsona bat berriz ere ikusiko duzula jakiteak edo leku batera berriz ere bueltatuko garela zin egiteak.

Baina, hala ere, nahiz eta hori pentsatu, sentsazio gazi-gozo horrek nire gorputzean jarraitzen du egun batzuetan. Azar Nafisi idazle irandarrak sentsazio honi buruz hitz egiten du *Leer "Lolita" en Teherán* liburuan. Leku batetik alde eginda, maite ditugun pertsonen falta sentitzeaz gain, une eta toki hartan ga-

Asegabeko artista



MAITANE APODAKA
Lehen Hezkuntzako irakaslea

renaren falta ere sentitzen dugu. Gure bertsio hori oroitzapenetan baino ez da geratzen. Ezin gara gure burua ez den beste inor izan eta izan ginena berriz izatea ere ezinezkoa da. Bizitza etengabe aldatzen da eta ezinezkoa da norberaren bizitzaren argazki berdin bi ateratzea.

Asegabeko artistaren artelanaren antzekoa da bizitza. Nahiz eta artelana bukatuta egon, artista horrek behin eta berrito ematen dizkio azken pintzeladak. Horrek bihurtzen du margolana koloretan.

**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zaintza Berrak
Logopedia
Podologia
Kirmasajea

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txantxi etorbidea, 9 - Lorja | Antzaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalmazinduz.com | www.dentalmazinduz.com

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Iaz 500 pertsona inguruk topatu zuten lana EGAZ Txorierriren bidez



EGAZ Txorierri Txorierriko Zerbitzu Mankomunitatearen zerbitzua da eta enplegua eta ekonomia sustatzea du helburu. Jakinarazi dutenez, 2022. urtean 497 pertsonari lagundu zieten lana topatzen. Pertsona horien % 22k lanaldi osoko kontratu mugagabea lortu zuten. Gainera, 29 enpresa-ekimen sustatu ziren, 679.500 euroko inbertsioa eginda eta 63 enplegu sortuta. EGAG Txorierri bitartekaria da enplegua lortu edo bizitza profesionala hobetu nahi duten pertsonen eta lantaldeetan profesional berriak sartu behar dituzten enpresen artean. Horretarako, tresna berritzaileak erabili ditu azken ur-

teotan, hala nola Talentu Play hautagaitza digitala eta bideo-curriculumak. Iaz, 1.981 lan-postutarako, 548 enpresaren eskaintzak kudeatu zituen (aurreko urtean baino % 12,76 gehiago), eta 5.209 lagun 48.455 kontsultari erantzun zien (2021ean baino % 1,22 gehiago).

Bestalde, enplegarritasuna hobetzeko asmoz, 357 pertsonak hartu zuten parte EGAGen prestakuntza eta orientazio-ikastaroetan eta -jardueretan. Azaldu duten moduan, "lan horren guztiaren ondorioz, 2022. urtearen amaieran Txorierriko langabezia-tasa % 7,33koa zen. Lanbideen datuen arabera, zifra hori

Bizkaikoa eta Euskal Autonomia-Erki-degokoa baino txikiagoa da; % 11,2 eta % 10,3 hurrenez hurren.

EGAG Txorierri bidez ere sektore hauek jo dute: manufaktura-industria (230 eskaintza), merkataritza (195), administrazioa (145), sektore profesionalak eta zientifikoak (124), ostalaritza (124) eta eraikuntza (113). Osasunari, arteari, entretenimenduari, garraioari eta ingurumenari lotutako eskaintzak ere izan ziren. Era berean, egitasmoak egin dira hautagaiek gaitasun pertsonalak eta profesionalak garatu ditzaten eta, hortaz, enplegua sustatzeko. Haien artean daude HAZILAN (52 parte-hartzaile; %75ek lana topatu dute), 3R (115 parte-hartzaile) eta Ezagutu Aukeratzeko (185 parte-hartzaile; 30ek lana topatu dute).

Azkenik, 29 enpresa ipini dira martxan EGAG Txorierri lagunduta. Enpresa horiek 63 lanpostu sortu dituzte, eta 679.500 euroko inbertsioa ekarri; dirukopuru horretatik 454.810 euro finantziatu dira Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Europako Gizarte Funtzaren dirulaguntzei esker. Enpresak 25 urtetik eta 45 urtera bitarteko lagunek sortu dituzte sektore hauetan: ostalaritza (% 24), eraikuntza (%24), merkataritza eta ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa (% 14), jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (% 10), garraioa eta biltegiatzea (% 7), informazioa eta komunikazioa (% 7), osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (% 4) eta manufaktura-industria (% 3). Gehienek, % 90ek, autonomoen erregimenean ipini dute negozioa.

Bizkaiko Futbol Federazioak "Hau ez da zure lekua; Hau ez da zure zelaia" futbol zelaietan izaten den indarkeriaren aurkako kanpaina aurkeztu du. Ekimena 2020-2024 plan estrategikoaren barruan dago, eta horren bidez, Bizkaiko futbol-zelaietan giro osasuntsua sustatu nahi du Federazioak. Kanpainaren haritik bideoak zabalduko dituzte eta horretan goi-mailako epaileek, jokalariek eta entrenatzaileek hartu dute parte, baita Uritarra Larrabetzuko futbol-taldearen ume batzuek ere.

"Pozik-pozik hartu dugu parte kanpainan. Batetik, mezuarekin bat gatoze-

Uritarra futbol-taldea bortizkeriaren kontra

lako. Tamalez, jarrera bortitzak asteburu ikusten ditugu zelaietan eta horien kontra zerbait egin behar da. Bestetik, klubari ikusgarritasuna ematen dio", esan du Xabier Bilbao Uritarra taldearen presidentea. Grabaketak martxoan egin ziren Larrabetzun.

Kanpainak hainbat bideo labur zabalduko ditu indarkeria gaitzesteko. Bizkaiko Futbol Federazioaren esanetan,

"edozein indarkeria da kaltegarria, fisikoa zein hitzen bidez sortzen dena". Bideoetan pertsona nabarmenak aritu dira: besteak beste, Ricardo de Burgos Bengoetxea nazioarteko epailea, Iñaki Williams, Mikel Balenziaga eta Nekane Diez Athleticen jokalaria, Andoni Goikoetxea futbolari profesional ohia eta Iraia Iturregi Athleticen emakumezkoen taldearen entrenatzailea.

Auto elektrikoak kargatzeko zazpi gune atonduko dira Derion

Derioko Udalak herrian auto elektrikoak kargatzeko zazpi gune atontzeko kontratua esleitu du. Karga-guneak leku hauetan ipiniko dira: Kultur Birikan, kiroldegiko parkingean, eskolako aparkalekuan, Euskalherria kalean, Aldekonen, Ganben eta Errekatxuetan. Udalak azaldu duen moduan, egitasmoaren helburuak dira herritarrei auto elektrikoak kargatzea erraztea, isuri gutxiko mugikortasuna bultzatzea eta hiriko eredu jasangarria indartzea.

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Macu Durán Palacios da maiatzeko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



Deriok dantza egingo du Gure Señeaken alde

Kukudantza Derioko elkarteak ongintzako dantza-jaialdia antolatu du ekainaren 3rako. Bi ekintza egingo dira jaialdiaren barruan, dantza-ikuskizuna eta dantza-saioa, eta sarreraren bidez batzen den dirua Gure Señeak herriko elkarteari emango diote oso-osorik. Kukudantzarekin batera, Derioko dantza-taldeek eta dantzariak hartuko dute parte jaialdian, baita Ezkerraldeko eta Bilboko dantzariak ere.

“Kukudantza elkartearen kide guztiok modu zuzenean edo ez zuzenean eza-gutzen dugu Gure Señeak elkarte, eta ondo dakigu euren helburuak zeintzuk diren. Pandemiak kalte handia ekarri die, zeren eta urtean zehar dirua batzeko egin ohi dituzten ekintzak bertan behera utzi behar izan baitituzte. Sarreraren salmenten bidez eta txosnan batzen den dirua haietzat izango da osorik”, azaldu dute dantza karibetarren taldearen kideek.

Jaialdia ekainaren lehen zapatuan egingo dute, 18:30etik 20:30era, udal-frontoian. Hasieran esan moduan, jaialdiak zati bi izango ditu. Lehenengo zatian hainbat dantzaren erakustaldia egingo da, eta bigarreanean, dantza-saioa. Jaialdian

Derioko talde eta dantzari hauek hartuko dute parte: Piperdun flamenko-taldeak, Lainomendi euskal dantzen taldeak, Mikel Eguia eta Sara Macarrilla areto-dantzen dantzariak eta, jakina, Kukudantza taldeak. Horietaz gainera, hauek ere izango dira ongintzako jaialdian: Meia Meia, Jorge y Bea bailan, Raices taldea, Portugaleteko Andaluziako Etxea eta Filohelena Periplo elkarte. Besteak beste, sabel-dantza, dantza grekoak, euskal dantzak, aretoko dantzak eta flamenkoa gozatzeko aukera egongo da Derion.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, hiru sarrera-mota ipiniko dira salgai. Dantza-ikuskizunera eta dantza-saioa joateko sarrerak sei euro balioko ditu; eta dantza-saioa joateko sarrerak, lau euro. Gainera, ilara Orako sarrerak ere ipiniko dira salgai hiru euroan. “Azken sarrera horiek erosi ditzakete jaialdia joango ez diren, baina Gure Señeak elkarteari dohaina egin nahi dioten pertsonak”. Sarrerak leku hauetan eskuratu ahalko dira maiatzaren 17tik aurrera: Irrintzi tabernan, Algo + que pan okindegian, Mamen perfume-dendan eta Ainara Mendoza ileapaindegian. Derioko Udalak lagundutako ekintza da.

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean iragarri duenez, Garraioetako Ministerioaren eta Aire Seguratasunerako Estatu Agentziaren oniritzia jaso ondoren, laster hasiko dira udal igerilekuak eraikitzeko lanak. Igerilekuak sagardotegi ondoan egingo dira. Begoñaren hitzetan, hori da lekurik aproposena, beste batzuen artean, kostuetan aurreztuko delako.

Azaldu moduan, sagardotegiaren ondoko lursaila udalarena da eta, beraz, ez da erosi behar. Gainera, sagardotegia egonda ez da beharrezkoa taberna eta jatetxe berririk egitea. Era berean, autoak aparkatzeko lekua dago inguruan, eta aldagelak azoka zaharreko azpiegiturretan eraikiko lirateke. Horiek guztiek kostuetan aurreztea ekarriko lukete, Begoñaren esanetan. Bestalde, aipatu du Loiuko hiritzinta-araudiek baimentzen dutela leku horretan kirol-azpiegiturak atontzea, eta ondo komunikatutako lekua dela, ondoan autobus-geltokia dago eta. Etxebizitzetatik urrun, baina erdigunetik gertu, egotea ere azpimarratu du, eta bertan hariztia izatea.

Loiuko igerilekuak sagardotegi ondoan eraikiko dira



a: Sarah Schorer (www.pexels.com)

Aire zabaleko igerilekuak izango dira eta 4.000 metro karratu izango dituzte. Besteak beste, harrera-gunea eta eraikin nagusia edukiko dituzte, jolasgunea eta nagusientzako eta umeentzako igerilekua. "Ahal den neurrian, material naturalak era-

biliko dira eraikitze-lanetan, eta nagusi izango dira zura eta gainazal gardenak eta zeharrargiak. Zoladura mistoak, konpaktuak, pasabideak eta berdeguneak uztartuko dira, lurraren iragazkortasuna lehenetsita".

TALDEA  **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

Derioko gazteek dirulaguntza eskatu dezakete alokairua ordaintzeko

Derioko Udalak jakinarazi duenez, guztira 40.000 euro zuzenduko ditu gazteei etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko. Dirulaguntzak 18 urtetik 35 urtera bitarteko gazteentzat dira, eta irailaren 30era arte eskatu ahalko dira Gertuan herritarren arretarako bulegoan. Dirulaguntzak eskatzaileen diru-sarreraren arabera emango dira, eta gehienez alokairuaren % 50 izango dira, edo 300 euro hilean.

Dirulaguntzen helburuak dira gazteak emantzipatu daitezela bultzatzea eta etxebizitzaren alokairua sustatzea. Informazio gehiagorako, Gertuan bulegora jo daiteke, edo oinarriak udal-webgunean kontsultatu: www.derio.eus.



Vecislavas Popa (www.pexels.com)



Xafla jarri dute Bizkargin, mendiaren garrantzia azpimarratzeko

Maiatzaren 7an Bizkargi Eguna ospatu zen, eta ohiko ekintzez gainera, xafla jarri zuten Morgako eta Larrabetzuko Udalek, mendi horretako tontorrean, 1937an eusko gudarien eta faxisten artean izandako bataila gogoratzeko.

“Xafla iaz jartzeko asmoa izan genuen, baina azkenean ezin izan zen. Aurten, «zorra» kitatu dugu, nolabait esanda. Haren bidez, aintzat hartzen dugu Bizkargiren garrantzia”, esan zuen Iñigo Gaztelu Larrabetzuko alkateak. Bizkargi mendiaren inguruan daude Larrabetzu, Muxika, Zornotza eta Morga udalerriak, baina, azaldutakoaren arabera, ez dira ados jarri, eta azkenean xafla Larrabetzuko eta Morgako Udalek ipini dute. Indalecio Ojanguren argazkilaria eibartarrak 1937an

egindako argazkiak eta testu batzuk jaso dira xaflan, mendi horretan izandako bataila azaltzeko. Gainera, aipatzen denez, “Bizkargi frankismoren aurkako borrokaren erreferente bihurtu da”, eta hori urtero ospatzen da.

Bestalde, ospakizunak aurreko egunean, zapatuan, hasi ziren Ernairen eskutik: hitzaldia, trikipoteoa, herri bazkaria, bertsolariak, jokoa eta musika. Hurrengo egunean, Bizkargi gogoratuz elkar batekin ere hainbat ekintza egin zituen: musika, dantza, omenaldia... Horiei Gure Esku mugimenduaren ekitaldia gaineratu behar zaie: argazki erraldoia egin zuten baselizan, eta mosaikoa, gailurrean. Jaia arratsaldean bukatu zen herrian, bertan erromeria egin zelako.

23/24 ikasturteko

aurrematrikula
ABANTAILAK

		EKAINA			
		1	2	3	4
5	6	7	8	9	10
12	13	14	15	16	17
19	20	21		24	25
26	27	28	%5_{eko} deskontua		



Egin aurrematrikula

aek euskara praktikoa

Txorierriko AEK
EUSKARA-IKASTAROAK

Txepetxa euskaltegia

Gorbea kalea 5, behea-Derío
94 454 39 67 · 607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

Zamudioko baserriak batu dituzte liburu batean

Zamudioko baserriak liburua argitara eman du Zamudioko Udalak, Labayru Fundazioarekin lankidetzan eta hainbat herritarrek egindako ekarpenei esker. Bertan herriko auzoetan, Zientzia eta Teknologia Parkean eta industrialdeetan dauden 86 baserri jaso dituzte. Liburuan datu hauek batu dituzte: baserri bakoitzaren izen jaso edo dokumentatuta; kasu batzuetan, haren alonimoa edo izen baliokidea; ahozko forma; eta toponimo bakoitzari buruz agirietatik ateratako informazioa. Igotz López Zamudioko alkateak liburuaren hitzaurrean adierazi

duenez, liburua dibulgaziorako prestatu da, "baserrien izenen ahozko zein idatzizko erabilera sustatzeko. Baserri horien guzti-izenak –haietako batzuek 500 urte baino gehiago dituzte– ez daitezten geratu ikerketa-lanetan ezkutatuta". Era berean, azpimarratu du lanari esker herriko baserrien izenak errazago jakinaraziko direla belaunaldiz belaunaldi, eta eremu publikoan zein pribatuan eta hezkuntzan erabili daitezkeela. Esan moduan, herriko etxe guztietan banatu da liburuaren ale bat. Nolanahi ere, www.zamudio.eus web-gunean ere badago eskuragarri.



Eguzki-panelak ipini dituzte Gure Etxean

Larrabetzuko Udalak jakinarazi duenez, 40 eguzki-panel ipini dituzte Gure Etxean, autokontsumo elektrikorako. Guztira 14.890 euroko inbertsioa egin da eta espero da "energia elektrikoaren % 30eko ekoizpena lortzea, modu garbian eta iraunkorrean. Argiaren fakturaren % 30 aurreztea ere espero da", adierazi dute.



Udaberriko kontzertua, Txuma Olagüe abesbatzaren eskutik

Ekainaren 2an, barikuan, Udaberriko kontzertua izango da Sondikako San Joan Bautista elizan, Txuma Olagüe abesbatzak antolatuta. Musika-emanaldia 19:45ean hasiko da eta Sondikako abesbatzarekin batera kontzertuan parte hartuko dute Itxartu abesbatzak (Algorta) eta Altzaga abesbatzak (Erandio).

SUI DELUX

Magia gauek goizera bitartean gertatzen da

Ezagutu ezazu lo indarberritzailearen magia; berdin dio nolako eguna izan edo izango duzun.

suitdelux.es

Larrabari baserria handitzeko lanak amaitu dira

Eraikinari bloke berria gehitu zaio mendebaldeko fatxadari. "Irisgarritasuna hobetzeaz gain, baserriari leku gehiago eman zaio: 100 metro karratu gehiago hain zuzen ere. Hala, Derioko bizitza kulturala aberasten duten jarduera gehiago egin ahal izango dira eraikinean", azaldu du. Udalak 223.000 euroko inbertsioa egin du "instalazio malguagoak eta modernoagoak" izateko, eta 27.238 euroko dirulaguntza jaso du Bizkaiko Foru Aldunditik. "Hobekuntzak bultzada berria emango dio gune honi, zeina erreferentziatzeko lekua baita umeen hezkuntzarako, sozializatorako eta garapen integralerako. Bertan, besteak beste, ludoteka-zerbitzua eskaintzen da".



Larrabetzu eta Lezama arituko dira Bizkaiko Herriarteko Txapelketan



Maiatzean, Bizkaiko Pilota Federazioak Herriarteko Txapelketa aurkeztu zuen 53. aldiz. Partidak datozen asteotan jokatuko dira eta hiru modalitatetan egingo da: esku-pilota, pala eta zesta. Lezamak lehenengoan hartuko du parte; eta Larrabetzuk,

bigarrenean. Txapelketaren irudietako bat Oier Hormaetxe pilotari lezamarra da. Hormaetxe etorkizun handiko jokalaria da.

Eskuzko txapelketan, Lezamak maiatzaren 28an eta ekainaren 4an jokatu

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominazioa de Euzko

Bizkaiko Txakolina

Goitioltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

izpilen

PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 Itonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

ZAMUDIO
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
jосуastorkiza@gmail.com

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

Alaia

fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua

Taller 5
48170 Zamudio
946 850 585

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

du final-laurdenetako kanporaketa. Oraindik ez daki nor izango duen aurrean, Amorebieta eta Zaratomoren arteko lehia oraindik egin ez delako. Irabazten duena lezamarren kontra arituko da. Txorierrikoek aurrera egiten badute, finalerdian Munitibarren edo lurretaren aurka jokatuko dute ekainaren 11n eta 18an. Finala uztailaren 2an izango da. Lezamaz gainera, beste 10 herrik jokatuko dute eskuzko txapelketa: Markina-Xemein, Amorebieta-Etxano, Galdakao, Gernika-Lumo, Iurreta, Munitibar, Ortuella, Sestao, Zaratamo eta Zeanuri.

Pala-txapelketari dagokionez, modalitate bi daude eta horietako batean, gomazko paletan, Larrabatzuk jokatu du. Horretan ez dago kanporaketarik, ligaxka baizik, hau da, herri guztiek elkarren kontra jokatu beharko dute. Lehenengo jardunaldia maiatzaren 14an eta ekainaren 4an egingo da eta horretan Larrabatzuk Bakiori egingo dio aurre; bigarrenean, maiatzaren 21ean eta ekainaren 11n, Amorebieta-Etxanori; eta hirugarrenean, maiatzaren 28an eta ekainaren 18an, Elorriari.

Gainerako txapelketan ez da Txorierriko herririk egongo. Paleta larruzko txapelketan lau herri sartuko dira lehian: Armintza, Bakio, Sopela eta Sestao. Eta zestakoan, Gernika-Lumo, Markina-Xemein eta Berriatua. Aurkezpena Bilboko BBK aretoan izan zen. Bertan, Koldo Bilbao BBK enpresa babeslearen ordezkaria eta Enaitz Olatea Bizkaiko Euskal Pilota Federazioaren presidentea izan ziren.

Harriet Aketxe, Bizkaiko txapeldunordea

Derioztarrak bigarrena izan zen Bizkaiko Konbinatuen Txapelketan, kimu kategorian. Aketxe bigarrena izan zen 60 metroko lasterketan, bederatzigarren segundoko baino gutxiagoko marka egin zuela. Era berean, 3,48 metroko salto egin zuen harea-hilobian, eta pisua zazpi metrora baino gehiagora jaurti zuen. Hiru proba horietan egindako puntuazioari eta bere erregulartasunari esker lortu zuen zilarra. Aketxe Beste Birako atleta da.



BIZI EUSKARA HURBILETIK

Informazio gehiago

2023
UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

A1,A2,B1,B2,C1 MAILAK PRESTATZEKO
IKASTARO TRINKOAK

UZTAILA 80 ordu: 3tik 28ra
Izen ematea: ekainaren 28ra arte

IRAILA 80 ordu: 4tik 29ra | **Izen ematea:** uztailaren 14ra arte

2022-23 ikasturtean euskaltegian
B2 eta C1 maila aitortuta dutenentzat:

30 ordu: 18tik 29ra | **Izen ematea:** irailaren 13ra arte

Dirulaguntzak eskuragarri

Informazioa eta izena emateko:
Txepetxa euskaltegia, Gorbea kalea 5, behea-Derio
94 454 39 67 · 607 59 87 94 · txepetxa@aec.eus

673 200 100 / 946 464 000
www.aek.eus

Saririk handiena

Apirilean, Espainiako Gimnastika Erritmiko Txapelketa izan zen Iruñean eta klubeko Naroa Alvarez txapelduna izan zen kadete kategorian. "Egia esan, ez genuen medailarik lortzeko asmorik, eta ez genuen espero. Egundoko poza hartu genuen; gainera, 200 parte-hartzaile egon zirela kontuan hartuta. Klubean ez dugu txapeldun gehiagorik, baina ezta izateko helbururik ez. Gizarteak bakarrik emaitzei ematen die garrantzia, baina zer gertatzen da medailarik lortu ezean? Bada, ezer ez. Zure bideak eta lanak aurrera jarraituko dute, eta zu ez zara gutxiago izango. Logikoa denez, entrenatzaile moduan gustatzen zait gimnastek garaipenak lortzea, baina ez lortzeak ez du esan nahi gauzak txarto egiten dabiltzala. Hori ulertu dezaten nahi dut. Inportanteena da kirolaz gozatzea, eta bideak berez egingo du aurrera. Bestalde, bere ariketa amaitu bezain laster Naroa nigana etorri zen eta eskerrak eman zizkidan; egon liteke hori baino sari handiagorik?".

a: Dana

Elena Bertol da Dana Gimnastika Klubaren presidentea, zuzendari teknikoa, entrenatzaile nagusia, kudeatzailea...; hau da, arima. Izan ere, kluba bere proiektu pertsonala da. Gimnastika erritmikorako grina handia du txikitatik, eta hainbat garaipen lortu ditu bere kirol-ibilbidean. Kontatu digunez, Farmazia ikasi zuen, baina aldi berean entrenatzaile zebilen kiroldegi batean. "Kaleratu ninduten, eta 10 gimnastek erabaki zuten nirekin jarraitzea: kluba 2006an sortu genuen. Oso hasiera korapilatsua izan zen, entrenatzeko leku egokia topatu behar genuelako. Bilboko eskola batean hasi ginen, eta handik ezaugarri egokiagoak zituen leku batera joan ginen, Eskurtze institutura hain zuzen. Baina pandemia etorri zen eta dena geldiarazi zuen".

Halabeharrez ezarritako geldialdi horretan, han eta hemen begiratu zuen, ea inguruan arrazoizko lokalik zegoen. "Nire



Ibilbide luzea du Dana Sondikako Gimnastika Klubak, duela 17 urte sortuz eta. Bere lantaldeak ere eskarmentu handia du, eta gimnastika erritmikoari modu adeitsuago batean heltzeko aukera eskaintzen diete gimnastei. Beren balioak zerbaitegatik dira adiskidetasuna, begirunea, enpatia, konpromisoa, nork bere mugak gainditzea, motibazioa, pasioa eta kalitatea.

aretoa izateak ilusio handia egin dit beti. Lekuari eta altuerari dagokienez, aretoek oso ezaugarri zehatzak eduki behar dituzte gimnastika erritmikoa eroso egin ahal izateko, eta zaila da halako azpiegiturak topatzea. Nolanahi ere, Sondikan bertan, etxe ondoan, aurkitu nuen. Ikustera etorri nintzen eta hemen gaude, poz-pozik".

Gaur egun, 70 gimnasta daude Dana klubean. Sondikakoak dira, Bilbokoak eta inguruko herrietakoak. Gainera, entrenamenduak Bilbon ere egiten dituzte, Sondikaraino hurbiltzerik ez dutenek euren kirol-errutinarekin jarraitu dezaten. "Hastapen-ikastaroa dugu lau urtetik zazpi urtera bitarteko gimnastentzat, eta zortzi urtetik aurrera hasten dira eskola-kirolean lehiatzen. Dena dela, lehiaketetan parte hartzen ez duen taldea ere badugu, lehiatzea gustatzen ez zaienentzat edo oraindik lehiatu nahi duten edo ez argi ez dutenentzat. Azkenik, gimnasta federatuak ditugu, Bizkaiko, Euskadiko eta Espainiako txapelketetan ibiltzen direnak".

Hala ere, klubaren helburua ez da medailak lortzea, gimnastek kirolaz gozatzea baizik. "Ahalegintzen gara euren onena eman dezaten eta euren onena zer den jabetu daitezen, baina presio barik eta beti ondo pasatuz". Horretarako, lantalde ederra du Bertolek ondoan. "Nitaz aparte beste bi entrenatzaile ditugu: Nerea Martinez de Lejarza eta Jone Perez, nire ikasleak izandakoak, eta nire sostengu. Fisioterapeuta ere badugu, eta kirolpsikologoa. Azken hori Marina Viejo da eta Espainiako selekzioarekin ibili da lanean". Bere esanetan, kalitate handiko gimnastika eskaini nahi diete ikasleei, gimnasta bakoitzaren ezaugarrietara eta beharrianetara egokituta. "Lortuz joaten garela uste dut".

Exijentzia handikoa

Exijentzia handiko kirola da. "Ariketa batek minutu bat eta 30 segundo irauten du, eta denbora-tarte horretan urte osoan egindako lana dago jokoan. Baina nik



“Ahalegintzen gara gimnastek euren onena eman dezaten, baina presio barik eta beti ondo pasatuz”

ere, gehienbat nesken kirola da. “Klub batzuetan mutilak daude, baina korapilatsua da mutilak kirol honetara erakartzea: etortzen dira gimnastika erritmikoak bene-benetan asetzen dituelako, edo mundu honetan dabilen edo ibilia den senideren bat dutelako. Edonola ere aipatu beharra dago mutilek gimnastika erritmikoan asko aurreratu dutela eta Espainiako txapelketa propioa eta guzti dutela. Danan momentuz ez dago mutilik; baten batek saiatu nahi badu, ondoetorria izango da”.

Ohiko eskola-saioez gainera, udalekuak ere eskaintzen dituzte. “Ekainaren 26tik uztailaren 14ra arte izango dira eta izena emateko epea zabalik dago. Aukera batzuk daude: goizean zein arratsaldean etortzea, bakarrik goizean... Oso ondo pasatzen dute, asko ikasi eta lagun berriak egiten dituzte”. Era berean, klubak Sondikan antolatzen diren ekintzetan hartzen du parte. “Esaterako, ekainaren 11n erakustaldia egingo dugu kiroldegian, eta San Joan jaietan ere izango gara”.

Etorkizunari begira, Bertolek ez du asmo handiko helbururik. “Nire proiektuak aurrera jarraitzea nahi dut, besterik ez. Hau da nire pasioa. Amak beti esan du nik ez dudala zaletasun bat, obsesioa baizik (kar-kar). Gozatu nahi dut, eta zoriontsua izan. Eta gimnastika erritmikoak zoriontsu egiten nau, dena ematen didalako. Gainera, neskatoak oso esker onekoak dira eta haiekin lan egitea zoragarria da”.



ulertarazi nahi diet lehiaketaren minutu eta erdi hori zerbait puntuala dela, bidea askoz luzeagoa dela eta gauza batzuk ondo eta beste batzuk txarto egingo dituztela; eta horrek guztiak lagunduko diela aurrera egiten. Kontuak kontu, esan beharra dago gimnasta aurreratuagoak euren buruarekin oso exijenteak izan ohi direla”. Eskola-kirolean dabiltzanek bi orduko entrenamendua egiten dute astean hiru aldiz, eta aurreratuagoak astean lau aldiz. “Dena lantzen dugu: mugimenduak, aparatuek, koreografiak...”

Oso pertsona bizia naiz eta gustatzen zait egiten duguna publikoarengana ailegatzea. Hori dela eta, denbora luzea ematen dut musika entzuten eta koreografiak prestatzen, gimnasta bakoitzari ondoen etorri dakiokiena aukeratzeko”.

Pentsatu liteke gutxiengoaren kirola dela, baina Bertolek esan digu ezetz. “Lehia handia dago, klub asko daudelako: kiroldegietan, eskoletan... Hainbat klubetako entrenatzaile batzuk batu gara eta talde ederra osatu dugu, elkarri hobetzen laguntzeko. Eta asko pozten gara gainerakoek garaipenez”. Hala

L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OAKLAND
ENGLISH


Ne-afaindegia
M^a Antonia Llodio ^{TXPI}

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behe B
48150 SONDIKA
634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Bide egokia Txorierriko gazteek enplegua lortzeko

EGAZ Txorierriren laguntzari esker, aurten, “Lehen aukera” programaren bidez, 14 gaztek kalitatezko lehenengo lana lortu dute

Gazte horietako bat Alain Bárcena da, 26 urteko sondikoztarra. Argi zuen zurgintza zuela gogoko. Horretarako, erdi mailako gradu bat egin zuen, praktikak egin zituen, lehenengo lan-esperientziak izan zituen... eta arlo horretako goi mailako gradu bat egin zuen prestakuntza osatzeko. Baina lan-munduan eman zituen lehenengo urrats haietan zerbait falta zitzaioela sumatzen zuen. Beraz, bere aukerak zabaltzea erabaki eta mekanizazioari buruzko ikastaro bat egin zuen. Hori esker, CNC (zenbakizko kontrola) arloan gaitzea lortu zuen. Prestakuntza osatu eta praktikak egin zituen Sondikako Mecanizaciones San Miguel SL enpresan.

Prozesu horretan, EGAZ Txorierriri enplegu-zerbitzua izan du bidelagun, Lanbide Ziurtagiria lortzeko aukera eman diona, eta gainera, Hazilan Proiektuan hartu zuen parte, ezagutzak eta gaitasun pertsonalak indartzeko.

Kasu honetan, Alain pozik dago lortu duen kontratuarekin eta eskerrak ematen dizkie EGAZ Txorierriko kideei. “Bide luzea egin dut zerbitzuaren barruan eta oso pozik nago. Alderdi asko hobetzen lagundu didate, eta, haien aholku eta orien-

tabide-zerbitzuei esker, lan ona aurkitu ahal izan dut, gogoko dudana egingo dut eta etxetik hurbil, gainera. Oso eskertuta nago”.

Era berean, Mecanizaciones San Miguel SL enpresak ere modu positiboan baloratzen du EGAZ Txorierriko enpresa erabiltzaile gisa izan duen esperientzia: “Zerbitzu hurbila da eta oso erabakigarria. Beti izan dugu oso emaitza ona pertsonekin, batez ere enplegu-eskaintzak kudeatu eta laguntzak izapidetu behar izan ditugunean”.

Izan ere, duela gutxi, enpresak Covadonga González langilea sartu du bere plantillan, EGAZ Txorierriren eskaintzen kudeaketari esker kontratatutako administraria.

Errepikatzen duten enpresak

EGAZ Txorierrik enpresei ematen dien laguntza eta kontratazioari laguntzeko “Lehen Aukera” bezalako programetan ematen den laguntza ere nabarmentzen du Hedapen Global Serviceseko zuzendaria den Libe de las Fuentes Intxaustik. Zamudioko Parke Teknologikoan dagoen enpresa da hori. Itzulpen

EGAZ Txorierrik enplegarritasuna hobetzen laguntzeko era guztietako programak sustatzen ditu etengabe, eta, zehazki, Lehen Aukera programa kudeatzen jarraituko du. Programa hori 2023ko urriaren 30era arte dago zabalik. Beraz, gazteak kontratatu nahi dituzten enpresek eta haien titulazioarekin lotutako enpleguetan lan-esperientzia lortu nahi duten pertsonak zuzenean jaso dezakete egin beharreko urratsen berri.

www.egaz.eus
tel. 944 536 370
e-mail: egaz@egaz.eus

tekniko eta zientifikoetan espezializatuta dago eta Euskadin eta Euskaditik kanpo ditu bezeroak. Pertsona bat hartu du EGAZ Txorierriren laguntzari esker.

Libek aitortu duenez, ez da erraza pertsona egokia aurkitzea, baina Janire Villanueva Pernasekin argi izan zuen hasiera-hasieratik, bertan jaso zuen talentuaz gain, Lanbideren programa honen gehieneko zenbatekoa ere jaso zezakeen, 13.970 euro. Horretarako, kontratuak baldintza batzuk bete behar zituen, besteak beste titulazioarekin bat datorren lanbide-kategorian egin beharrekoak. Gainera, programa hau arrakastatsua da pertsonentzat eta ez da esperientziarik behar.

Gazteek lan-eskaintzetan izaten duten oztopo handiena esperientzia izaten da; izan ere, enpresek ez dute aukerarik ematen lanpostuan bi urteko edo gehiagoko esperientziarik ez baduzu. Beraz, ekimen hori aukera bikaina da lan-ibilbideari hasiera emateko posizio profesional batetik.





Familia eta globalizazioa

Euskara batua beharrezkoa dugu; horretan, zorionez, adostasun zabala dago. Bizimodua errazten digu: administrazioan, eskolan, prentsan... Baina, erne, batuaren alde egoteak ez du esan gura bertakoak, norberarenak, lekurik ez duenik. Txorierritarren **berbetea, ederra izateaz gain, aberatsa da, ñabardura eta esapide ugariakoa**. Azken urteotan txarto ulertutako globalizazioak asko mehatzu du gure hizkuntza. Familiakoak izendatzeko berbetara ere heldu da pobretze

hori. Gure umeak *haur* bihurtu dira, eta etxeke aititita-amamak *aitona-amona*. Eutsi diezaiogun, bada, etxekeari. Neba berba ederra, esaterako, Bizkaian baino ez da erabiltzen, baina badu bere tokia Euskaltzaindiaren hiztegian ("Bizk." laburdurarekin).

Zamudio eta Larrabetzu bitartean *aitaxea* eta *amaxea* berbak ere erabiltzen dira aitagarreba/amagarreba izendatzeko. Sondika eta Loiu inguruan, berriz, *aubea* erabiltzen da.



Iloba (senide baten semea edo alaba) adierazteko *loba* erabiltzen da Euskal Herriaren mendebalde honetan.

Euskalki eta berbetea bakoitzak bere hitzak ditu; erabil ditzagun konplexurik gabe, etxetik hasita. Izan ere, hizkuntza-aberastasuna etxetik (& eskolatik) hasten da.

Berdintasun kontzeptuak

ERAKARPEN SEXUALA: pertsona baten interes sexuala piztu eta atxikitzeko gaitasuna. Ezaugarri fisikoek, gorputz-hizkuntzak, usainak, janzkerak, estatus sozialak eta nortasunaren beste zenbait alderdik eragina dute pertsona batek beste pertsona batenganako senti dezakeen ekarpen sexualean.

SEXU-ORIENTAZIOA: pertsona batek beste pertsona batzueganako erakarpen sexuala sentitzeko edo ez sentitzeko duen joera, sexuaren edo generoren arabera.



KAISHOP!
Erosi euskaraz Txorierrin

Asko balio du! Kalitatea Bertoko hizkuntza Bertoko dendak eta tabernak

Gazteleku taberna Larrabetzu
Josune Janaridenda Lezama
Nagusien Etxea taberna Loiu
Liliak loradenda Derio
Izpilen belardenda Sondika
Azmak arrandegia Zamudio

Bizkaia



Derio, gurutze-bidea

Bailara txikia bada ere, primerako komunikabideak ditugu Txorierrin. Trenek, autoek eta hegazkinek egunero gurutzatzen dituzte gure herriak, egunez zein gauez. Eta batzuetan, argazkian ikusten denez, ikuskizuna ederra da.

Argazkia: Alex Albarrán

Centro Dental
Txorierrri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mixine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierrri.es

ORTODONCIA21

POLITEKNIKA TXORIERRI

hegan
egiteko aukerak


Bacilleroa eta
Lortu behar duzun
Bachillerato y
Farmacia Profesional

Eman izena!
www.politeknikatxorierrri.eus

HETEL


Boto-ontziekin hitzordua

Maiatzaren 28an hitzordua izango dugu boto-ontziekin, udal- eta foru-hauteskundeak izango dira eta. Gurean, 16.907 lagunek dute botoa emateko eskubidea; eta Erandion, 19.020 lagunek. Txorierriko alderdi nagusi bietara jo dugu datorren agintaldiari begira dituzten asmoak eta lan-ildoak kontatu diezazkiguten; hurrengo orrialdeotan proposamena onartu dutenei egindako elkarrizketak ipini ditugu irakurgai. Bestalde, orrialde honetan herri bakoitzeko herri bakoitzeko gaur egungo udal-antolaketa dago.



DERIO

- EAJ-PNV
- EH BILDU
- PSE-EE




ERANDIO

- EAJ-PNV
- EH BILDU
- PSE-EE
- ELKARREKIN-PODEMOS




LARRABETZU

- EAJ-PNV
- EH BILDU




LEZAMA

- EAJ-PNV
- EH BILDU




LOIU

- EAJ-PNV
- EH BILDU



SONDIKA

- EAJ-PNV
- EH BILDU
- PSE-EE



ZAMUDIO

- EAJ-PNV
- EH BILDU

“Derioztarrek bizitza erosoagoa behar dute, eta eguneroko arazoak konpondu”

IRUNE PALMOU ORUE-ETXEBARRIA | Derioko EH Bilduko alkategaia



“Derio azken urteotan asko hazi da, baina ez dira hazi inondik ere herritarrentzako zerbitzuak”

botoa eman diotenena eta eman ez diotenena. Derioko biztanleekin entzuketa aktibo etengabea egin behar da, eta parte hartzeko benetako mekanismoak martxan jarri. Horrezaz aparte, Deriok pauso eraginkorrak egin behar ditu jasangarritasunean: Airtzak basoa babestu, errekek bernaturalizatu, kutsadura gutxitzeko neurriak hartu...

Zer azpimarratuko zenuke zure lantaldeari buruz?

Lan aparta egin dute zerrenda nirekin batera diseinatu dutenek. Zerrenda plurala osatu dugu: hainbat elkartetan dabilen jendea dago, gazteak eta ez hain gazteak, feministak, euskaltzaleak, bertan jaio-takoak eta atzerritik datozenak... Deriok dituen mila kolore irudikatu nahi izan dugu zerrendarekin.

Nola baloratzen duzu azken agintaldia?

Azken agintaldian, EAJK bere gehien-go nahieran erabili du. Euren interesen arabera gobernatu dute. Guk mila alternatiba aurkeztu ditugu, baina oso gutxi hartu izan dituzte kontuan. Uste dut galdu dela herritar guztientzako udala egiteko aukera aparta.

Karguaz jabetuz gero, zein izango da zuen lehentasuna?

Ehun neurriko programa osatu dugu, gobernantza, jasangarritasuna, zaintza eta bizitza komunitarioa hobetzeko. Baina horietatik lehena izango da alkate, zinegotzi eta talde politikoei jasotzen duten dirua nabarmen murriztea. Iruditzen zaigu gaur egun jasotzen dutena eskandaluzkoa dela.

Zer dela-eta onartu duzu alkategai izatea?

Azken lau urteotan zinegotzi izan naiz, eta EH Bilduko mahai politikoak eskatu zidan alkategai izateko. Dudan esperientziak eta dagoen egoerak bultzatuta baietza eman nuen. Nire ustez, derioztarrek bizitza erosoagoa behar dute, eta eguneroko arazoak konpondu. Eta nik horretan sinisten dut. Horrez gain, uste dut Derion gauzak aldatzeko sasoia heldu dela, eta, horretarako, norberak pausok egin behar ditu.

Datozen lau urteei begira, zeintzuk dira zuen ildo-nagusiak?

Derio azken urteotan asko hazi da, 2.500 pertsona baino gehiago etorri dira gure herrira bizitzera. Baina ez dira hazi inondik ere herritarrentzako zerbitzuak. Eta uste dugu gelditzeko momentua heldu dela, lau urteotan etxebizitza gehiago ez egiteko eta derioztarrentzako zerbitzuak areagotzeko. Gainera, kontrol bako hazkunde horrek kalteak eragin ditu, batez ere Mantulizen eta Errementeriñen,

eta horiek konpondu ezean, ez dago aurrera egiterik.

Eta erronka nagusiak?

Udala derioztar guztien etxea izan behar da, gobernuan dagoen alderdiari

Iruñe Palmouk 53 urte ditu. Derioztarra eta bi seme-ama da. Gaur egun, Osakidetzan dabil lanean. Gaztetatik hainbat mugimendu eta elkartetan ibili da, eta gaur egun ere hori da, bere ekarpena egiten. Azken lau urteotan, EH Bilduko zinegotzi aritu izan da Derioko Udalean. Oraingoan zerrendaburu izateko erabakia hartu du, “gogoz eta ilusioz”, eta “derioztar konprometitu askorekin” batera, lanean aritzeko asmoa azaldu du hurrengo lau urteotarako, “Derio bizigarriagoa” egiteko asmoz. “Deriok irtenbide berriak behar dituela” adierazi du. “Derion gura dugu bizi eta gura dugu hobeto bizi”.

“Erandiok bigarren eraldaketari ekingo dio, inor atzean utzi gabe hazteko”

AITZIBER OLIBAN GUTIERREZ | Erandioko EAJ-PNVko alkategaia



Berriro aurkeztu zara alkatetzara.

Errepikatzeke proposatu naute, EAJ-PNVren hiru Udal Batzek (Astrabudua, Erandio Bekoa eta Erandiogoikoa) aho batez hala erabakita. Erandion esperientzia eta gogoia dituen pertsona bat behar dela ikusarazi didate, inor atzean utzi gabe herria haztea lortuko duena, eta ekin beharreko etorkizuneko erronka garrantzitsuei erantzuna emango diena. Ilusioz beteta nago.

Zeintzuk dira datorren agintaldira-ko lan-ildo nagusiak?

EAJ-PNVren ahaleginek orain ere helburu hauek izango dituzte: jarduera ekonomikoa sustatzea, enplegua sortzea, trebakuntza bideratzea, gazteentzako eta nerabeentzako aisialdiko jarduerak, jarduera fisikoa osasunerako giltzarritzat

“Erandio udalerrri atsegina, ordenatua eta dinamikoa izatea da gure asmoa”

hartzea, herri hezitzailearen topagunea sortzea eta Erandio udalerrri atsegina bihurtzea.

Eta erronka nagusiak?

Gaur egun, herriguneak biziberritzeko asmo handiko prozesu batean murgilduta dago Erandio, industrialde zaharrak eraldatu eta bizitegi-ingurune bihurtuko dituen, eskura izanez oinezkoentzako kaleak, espaloi zabalak, oinezkoek lehen-

Astrabudian jaioa eta hazia da, eta bertan bizi da. Olibanek 42 urte dauzka, lizentziaduna da bai Politika eta Administrazio Zientzietan, baita Ikerketa eta Merkatu Tekniketan ere, eta Demokrazia Parte-hartzailearen Dinamizazioa eta Teknikak graduondokoa ikasi du. Udalerriko bitzta politikoa ezagutzen du, alkate izateaz gain (2019-2023), Udalbatzako zinegotzia ere izan delako (2003-2011). Udal Batzan eta BBBn ere barne-karguetako ardurak izan ditu.

tasuna daukaten guneak, berdeguneak eta parke publikoak.

Zer talde-mota izango duzu ondoan?

Alkatetzara lortu edo ez, udalerria eta erandioztarren beharrak eta kezkek eza gutzen dituen talde bat izango dut lagun, multzo berean gaitasuna, jarrera eta ilusio handia biltzen dituen.

Nolakoa izan da azken agintaldia?

Zalantzarik gabe, kudeatzeko zailetako bat izan da, pandemiaren ondorioz; izan ere, arreta, lehenetsiak eta aurrekontua batez ere sektore zaurgarrietara bideratu dira, orain arte ez ezaguna zen egoera leuntzen lagundu duen Talka Plan baten bitartez. Horrekin guztiarekin ere, zerbitzuei eutsi ahal izan diegu eta aurreikusitako inbertsio gehienak garatu ahal izan ditugu.

Proposamen zehatzak egin dituzu programan. Alkatetzara lortuko bazenu, zer egingo zenuke lehenengo?

Zenbait proposamen egin ditut, bai, batzuk agintaldi honetan sortuz joan diren aukerekin lotutakoak (bidegorria), beste batzuk entzute aktiboaren, gure inkesten eta “Entzunez eraiki” ekimenaren ondorio. Aurrera, batera! Zer egingo nuke? Bada, lagundu didatenei eskerrak eman, eta Erandion gobernagarritasuna nola lortu pentsatu.

“Larrabetzuarron bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko herri-proiektua dugu”

IÑIGO GAZTELU BILBAO | Larrabetzuko EH Bilduko alkategaia



Zergatik erabaki duzu alkatetzara berriro aurkeztea?

Zortzi urte daramatzat udalean, baina koronabirusak bi urtez normaltasunez jardutea eragotzi zuen. Hori dela eta, ezin izan ditugu aurreikusitako proiektu batzuk gauzatu, eta gustatuko litzaidake horiek hurrengo agintaldiaren lehenengo urteetan gauzatea. Eta batez ere herrikideek emandako babesagatik eta animoagatik erabaki dut berriro aurkeztea.

Zein da datozen lau urteetarako lan-ildo nagusia?

Azken 12 urteotako berbera: larrabetzuarron bizi-kalitatea hobetzea. Horretarako, herritarrek izango dira protagonista, eta elkarlanean, auzokideekin, guztiok kezkatzen gaituzten gaietan sakonduko dugu: osasuna, ingurumena, kultura, euskara, parekidetasuna, kirola...

Eta erronka nagusiak?

Erronka nagusietako bi nabarmen-tzeko: etxebizitza eskuratzeari orain baino irtenbide merkeagoa ematea eta azpiegitura publikoak hobetzea. Gazteentzako laguntzak handituko ditugu alokairurako, eta, alokabiderekina batera, hutsik dauden etxebizitzak alokairu-mer-

Larrabetzuko Urkulu baserrian jaioa (1968), Derioko Seminarioan eta Institutuan ikasi zuen. 1989tik hona Eroski kooperatibaren bazkidea/lan-gilea da. 2004an eszedentzia eskatu zuen eta 2012ra arte gerente ibili zen GARA egunkarian. Institutu-garaian hasi zen politikan eta herriko hainbat elkartetan parte hartzen. 2015etik hona da Larrabetzuko alkatea.

katura ateratzeko kanpaina abiaraziko dugu. Hurrengo agintaldian, 3.250.000 euroko inbertsioa egingo dugu: eskolako eraikinean eta jolas-gunean atontze-lanak; futbol-zelaiko aldagelak eta lokal berriak; Errebale eta Gaztelumendi kaleak batzea; espaloi berria, Elexaldetik Gaztelumendiko igoeraren hasieraraino; lokal publiko berriak, ludotekak eta Errebale jauregia; eta udaletxearen birgaitze osoa. Azkenik, Aretxabalaganeko parke berria ipiniko dugu martxan, 18.500 metro karratu izango dituen.

Nolako lantaldea izango duzu ondoan?

EH Bilduk gaztetu du zerrenda. Gainera, azpimarratzekoa da emakumeen protagonismoa, zerrendako lehen zortzi kideetatik zazpi emakumeak dira eta. Denok bizi gara Larrabetzun, udalerriko errealitate sozialean inplikaturik gaude eta herriko hainbat taldetan hartzen dugu parte.

Nola baloratzen duzu azken agintaldia?

Herri Programan agindutakoa bete dugu. Nabarmenduko nuke, besteak beste, 1.050.000 euro inbertitu ditugula eraikin eta zerbitzu publikoak hobetzeko. Ekintzak ere antolatu ditugu euskararen eta herri-kulturaren alde, eta dirulaguntza berriak sustatu ditugu lehen sektoreari laguntzeko eta gazteei etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko. Era berean, herriko gazte sortzaileentzako beka sortu dugu. Larrabetzu Bizkaibuseko 2. tarifa-eremuan sartzea lortu dugu Garraioa Irauli elkartearekin batera, eta eraso sexisten kontrako udal-protokolo berria egin dugu Zutunik! talde feministarekin eta herritarrekin elkarlanean.

Karguaz jabetuz gero, zer egingo duzu lehenik?

Ez naiz originala izango; proposamenez harago, aurrekoetan esandakoa esaten jarraituko dut, eta herritar guztien alde lan egiteko konpromisoa berretsi, azken zortzi urteetan bezala. Nirekin batera udala osatuko duten zinegotzi guztiak ere konpromiso berarekin arituko dira; ez izan dardarik. Guk gobernatuta, udaletxeak herriko etxea izaten jarraituko du.

“Eraikin eta bide publikoetan 3.250.000 euroko inbertsioa egingo dugu datozen lau urteetan”

“Lezama ume, gazte zein helduentzako herria izatea nahi dugu”

HARITZ CARRERA SARASOLA | Lezamako EH Bilduko alkategaia



Nolako ekarpena egingo diezu lezamarrei?

Parte hartzeko prozesu baten ondorioz ailegatu zitzaidan alkategai izateko aukera, eta taldea, babesa, gogoia eta gauzak aldatzeko ilusioa nuela ikusita, pauso bat aurrera egitea erabaki nuen. Gaztetasunetik eta freskotasunetik, partaidetzazko kudeaketa eskaini nahi diet herriari eta herritarrei, konstruktiboa eta gardena, lezamarron premiazko beharriaz aseko dituen.

Horretarako, zeintzuk izango dira zuen lan-ildo nagusiak?

Herri-programan aurkeztu moduan, herri txikia eta euskalduna nahi dugu, eta herri-nortasun hori bermatuko dituen politikak sustatuko ditugu. Lezama ume, gazte zein helduentzako herria izatea nahi dugu, eta bertan guztiok modu duinean bizitzeko aukerak ahalbidetuko dituzten politikak egingo ditugu.

Eta erronkak?

Erronka nagusietako bat da lezamarrek, eta batez ere gazteek eta baliabide ekonomiko urriko pertsonak, etxebizitza duina lortzeko ezintasunagatik herritik alde egin behar ez izatea. Horretarako, etxebizitza babestuak alokairuan zein

“Etxebizitza babestuak eskuratzea bermatuko dituzten planak sustatuko ditugu”

salmentan eskuratzea bermatuko dituzten planak sustatuko ditugu. Era berean, eskolaren gaur egungo eta etorkizuneko beharriaz aseko dituen plan integrala martxan ipiniko dugu; eta azpiegiturak eta zerbitzuak, nagusien zaintzak eta osasuna bermatzeko. Beste erronka batzuen artean daude ingurumena zaindu eta klima-larrialdiari aurre egiteko eraldaketa ekosoziala, politika feministak eta euskara sustatzea.

Nolako lantaldea duzu?

Lantalde sendoa, askotarikoa eta prestatua da gurea, aipatutako erronkak bete ahal ditugula sinetsita dagoena. Ideia berriak ditugu eta gogotsu gabilta, bide honi ekiteko eta herriari onena emateko.

Nola baloratzen duzu azken agintaldia?

Bilbon jaioa (1984), duela 20 urtetik hona oso lotura estua du Lezamarekin eta lezamarrekin, lanagatik zein bere egoera pertsonalagatik. Batxilergoa amaituta, Lezamako ZF Sachs enpresan hasi zen lanean. Herri-mugimenduari betidanik egon da lotuta, eta azken urteotan bereziki langileen eskubideen alde egin du lan, LAB sindikatuaren delegatua da eta. Bi alaba ditu, eta aisialdia familiarekin eta lagunekin ematea atsegin du. Oso kaletarra da, eta kirola eta mendia maite ditu.

Udal-gobernuaren ezintasuna nabarmena izan da hainbat arlotan. Ez dira etxebizitza-proiekturik aurrera eramateko gai izan, eta ondorioz, herriko gazteen exodoak ez du amaierarik, horrek dakarren odoluste soziala eta guzti. Bestalde, gizarte-arloko ia ardurak guztiak Mankomunitatearen eta enpresa pribatuaren bidez kudeatzen dira, eta euskararen erabileraren ikuspuntutik, ez dute inongo aurrerapausorik egin UEMaren parte izateko. Eskola publikoa garatzeko plangintzarik ere ez dute egin, eta aisialdiko programa integralik ez dago, ez umeentzat, ez gazte zein adinekoentzat. Azkenik, metodo suntsitzailak erabili dira udal-basoen aprobetxamendurako, herriaren eta herritarren beharriaz aseko dituen erdi-gunean jarri beharrean, beste interes batzuk lehenetsi dira eta.

Karguaz jabetu gero, zer egingo duzu lehenik?

Nahiz eta programan ez egon, soldata jaitsi eta gaur egun dudanarekin parekatuko dut, aldea herrian eta herritarrengan inbertitzeko. Bestetik, programaren hainbat puntu betetzeko, ezinbestekoa izango da gainerako alderdiekin eta instituzioekin elkarlanean ibiltzea, eta prest gaude horretarako: era eraikitzailean eta kooperatiboan lan egiteko konpromiso argia dugu.

“Loiuk aisialdia baino gehiago behar du”

KOLDO URIZARBARRENA CASTELLOTE | Loiuko EH Bilduko alkategaia

Zergatik aurkeztu zara alkatezara?

Badakit politika ez dagoela sasoi onean, eta politikagintzan gabiltzanok gaizki ikusita gaudela. Hala ere, politika aldarrikatu nahi dut, eremu publikoa delako; guztion eremua da eta guztioi dagokigu. Gizartea hobetu nahi bada, ezin da inondik inora jarduera politikoa saihestu. Politika ona eta zintzoa egin behar da, noski, baina bide batez, esan behar da politikari guztiak ez garela berdinak, EH Bildun erakusten gabiltzan moduan.

Zure ustez, politikari guztiak nozibait udal-politikan ibili beharko zenukete.

Egundoko ikasketa ona da. Batzuek diote goi-politika Europan edo parlamentuetan egiten dela; nire ustez, herriko bizilagunen arazoak entzun eta konpontzen ditugunean egiten dugu politika maiuskulaz; udaletik. Jakina, Euskal Herriko subiranotasun nazionala eta beste gai batzuk landu ditzakegu eta landu behar ditugu; hala ere, egunero ditugun arazoak konpondu behar dira, gure kaleetan, gure jendearekin egonda.

Zeintzuk dira datorren agintaldirako ildo-nagusiak?

Loiu bidezkoa eta solidarioa izatea nahi dut, eta gainerakoen aukera berberak ez izateagatik inor atzean gelditu ez dadin. Justizia soziala gaur egun ez dugun benetako ongizate-gizartea lortzeko oinarria dela sinetsita nago. Erabat jasangarria den herrian bizi nahi dut, eta ez soilik atal ekologikoan. Ez dit balio EAJk esateak Murtzian baino hobeto gaudela: Suedian baino hobeto egon behar dugu, eta gure helburua hor goian jarri.

Proposamen ausartak direla azpimarratu duzu.

Guztiak dira bideragarriak, diruaren, eskumenen eta aukeren ikuspuntutik. Aitzakiak aitzakia, beti egongo da ezetz zeri esan; egia bihurtzeko, bakarrik behar da borondatea. Loiuk aisialdia baino gehiago behar du: herriaren etorkizuna sustatzeko, aisialdiaren

“Argazkietan agertzeko, fundamentuzko proposamenak ipini ditugu mahai gainean”

aurretik ipini behar dira etxebizitza, lana, herrigintza, hezkuntza, formakuntza, ingurumena eta jasangarritasuna.

Nola baloratzen duzu azken agintaldia?

Positiboki. Ez gaude neurri populisten kontra: denetarikoa behar dugu Loiu, eta horregatik babestu dugu ia dena. Gure proposamenen % 90 ere hartu dira kontuan, eta batzuk haratago egokitu. Lortu ditugun akordioak onak izan dira loiuztarrentzat.

Nolako lantaldea izango duzu ondoan?

Zerrenda osatzen dugun pertsonok oso ondo ezagutzen dugu Loiu; gainera, auzune guztiak daude ordezkaturik. Lehengo eta oraingo Loiu bizi dugu; herria sufritu eta gozatu dugu, eta prest gaude Loiuri astindu goxoa emateko. Gure unea da, herriaren unea. Ilusioz beteta nago, eta Loiu ez ezik Txorierrin eta Euskal Herrian emaitza ederrak lortuko ditugula ziur nago. EH Bildu *Abante* doa; olatu geldiezinara gara. Gora Loiu eta *Abante!*



Loiu (1970). Urizarbarrena lorezaina da, aita eta osabak bezala. Haurtzarora Garone baserrian igaro zuen. Aitite Luis, Arana Bekoa baserrikoa, Burdinazko Gerrikoaren ingeniaria izan zen. Telletxe baserrian bizi zen, eta Agirre lehendakaria bertan ezkutatu zen. Ama Arrigorriagakoa da, Arandia baserrikoa, eta han eman zituen uda asko, aitite Jorge eta amuma Filomenarekin. Aititek Egin egunkaria sortzen lagundu zuen, eta berak eta anai-arrebek SESB eta Mexikora alde egin behar izan zuten, Eusko Alderdi Komunistaren kideak ziren eta. Miren Karega Loiuko batzokiko sukaldaria izandakoak behin esan ziona ez du inoiz ahaztuko: “Orain, falangistak izan direnak ere afiliatzen dira gurean: batzuei edozer balio zaie; niri ez. Ez dut kantitatea nahi, kalitatea baizik”.

“Parte hartzeko aukera emango diegu herritarrei, Sondika hobe bat lortzeko”

LAIENE CRISTOBAL ROYO | Sondikako EH Bilduko alkategaia



“Erronka asko ditugu: haurreskolaren plaza-kopurua handitzea, nagusientzako eguneko zentroa, etxebizitza publikoa...”

Zergatik onartu duzu alkategai izatea?

Gure konpromiso nagusia da Sondikarako eta sindikoztarrontzat onena bihurtzea, eta azken urteotan zinegotzi ibili naiz, konpromiso horretan lanean, gustura, merezi duelako. Oraingoan konpromisoz, ilusioz, anbizioz eta indarrez heldu diot alkategaia izateko erronkari. Udal-eredua aldatu nahi dut, eta herritarren lau urterik behin botoa ematek haragoko gaitasunaren balioa azpimarratu. Udal irekia nahi dugu, gardena, parte-hartzailea, bizia, feminista eta euskalduna; hau da, udala herriaren zerbitzura ipini.

Zeintzuk dira datozen lau urteetarako lan-ildo nagusiak?

Beste batzuen artean, herria ondoen ezagutzen dutenen iritzia jaso behar da: herritarrena, alegia. Izan ere, politika publikoak garatzeko, benetako partaidetzazko politikak ipiniko ditugu martxan. Gainera, Artxandan, Bilboko zabortege zaharra berriro irekitzea gogor arbuatzen dugu, eta lan egingo du-

gu hango ingurumena erabat berreskuratzeko. Era berean, plangintza bat garatuko dugu euskararen kale-erabileraren datu larriei buelta emateko, eta gobernantza feminista bultzatuko dugu herririko taldearekin.

Erronkarik?

Erronka asko ditugu. Haietako bat da, familien kontziliazioa bermatzeko,

Hogeita hamazortzi urteko sindikoztarra Enpresa Zuzendaritzan lizentziaduna da. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun saileko langilea da eta urte askoan Altzora elkartearen ibili da lanean. Cristobalek argi dauka lankidetzamodu berriak aktibatu behar direla udalaren eta herritarren artean. “Norabide-aldaketa behar dugu, guztion artean adostua eta gidatua. Horren arrakastaren berme bakarra da Sondikaren eta sindikoztarren potentzialtasuna bera. Gure komunitatea da gure indarra”.

haurreskolaren plaza-kopurua handitzea, eta, ondorioz, txokoa beste leku batera eraman. Bestalde, gure nagusien zaintzen beharrari erantzuna emateko, eguneko zentroa zabaldu nahi dugu herrian; eta gazteei emantzipatzen laguntzeko, alokairu soziala eta etxebizitza publikoa sustatu. Elkarreentzako lokalak ere atondu nahi ditugu, eta herritarrei arreta egiteko bulegoa herrigunearan ipini, udala sindikoztarrengana hurbiltzeko.

Nolako lantaldea izango duzu ondoan?

Aurretik zinegotzi ibilitako batzuk berriro aurkeztu gara, eta zerrenda lagun berriekin ere indartu dugu. Gogoz, gaitasunez eta eskarmentuz betetako taldea gara, Sondikak datozen urteotan dituen erronkei aurre egiteko.

Egin azken agintaldiari buruzko balorazioa.

Lan handia egin dugu. Proposamenak eta proiektuak aurkeztu ditugu, eta haietako batzuk gauzatu badira ere, hala nola komun publikoa, parke estalia eta ikasketak-gela, ideia on asko egiteko aukera galdu da. Hala ere, bide horretan jarraituko dugu, guztion artean udala eraikiz.

Karguaz jabetuz gero, zein da egingo zenukeen lehen gauza?

Gauza asko egin daitezke datozen lau urteotan, baina nik lehenengo egingo nituzkeenak hauek izango liriteke: haurreskolaren lekurik ezari konponbidea ematea eta alkatearen soldata zein zinegotzien dietak jaistea.

“Beste udal-kudeaketa bat posible da”

JAGOBA JAUREGI BASTERRETxea | Zamudioko EH Bilduko alkategaia

Parte hartzeko prozesu baten bidez izendatu zaitue alkatetzara; zelangoko ekarpena egin ahal deusezu Zamudiori eta zamudioztarrei?

Betidanik izan naz hainbat kirol- eta kultura-talderen parte, bai kide moduan, bai antolatze-beharretan. Hortaz, ondo dakit Zamudiogaz konpromisoa eta Zamudioren alde behar egitea zer dan; eta hori behar dogu hain zuzen. Bestetik, gauzak beste modu batera egin ahal dirala sinesten dot: gardentasunez, zintzotasunez eta batez be parte hartzeko bideak zabalduz, herritarrok proposatu eta erabagitzeko guneak sortzeko, herria danon artean egiten dogulako.

Herri-programa bi aurkeztu dozuek datorren agintaldiari begira, zer gaitik?

Bai, herri-programa eder bi osotu doguz: bata, herriarentzat orokorrean, eta bestea, herriko auzoentzat. Izan be, azken horreen errealitatea guztiz ezbardina da

“Alkatetzara heltzeko eta udala kudeatzeko prest gagoz; horretarako gai diran zamudioztarrek osatutako lantalde ederra dogu”

eta beste arazo batzuei egin behar jake aurre. Egindako proposamenen artean honeek azpimarratu daikeguz: Palets Txorierriko pabilioia erabarritzea, herriari hainbat zerbitzu emoteko; gazte zein adintsuentzako lokal eta egituraketa bariak; etxebizitza arazoari aurre egiteko formulak; herriko eraikuntza publikoak energia barriztagarritz hornitzea; herriko emakumeak batera alkarrekintzarako guneak sortzea; eta zaintzari arreta be-

rezia emotea. Hau da, pertsonak erdigunean ipini gura doguz, inor atzean itxi barik. Bestalde, aspaldidanik dogun lan-ildo nagusia da herria hirigintza-zein gizarte-ikuspegitik bitan zatitzen dauan trenbideari konponbidea emotea. Urte-etan aldarrikatu eta hainbat lorpen txiki lortu ondoren, alkatetzera eskuratzen badogu, aurrerapauso itzela lortuko geunke, trenbidea lurperatzeko helburua behingoz lortuta.

Zeintzuk dira zuen erronka nagusiak?

Aurreko lerroetan aitaturako egitasmoez gainera, gure erronkarik handiena da erakustea beste kudeaketa bat posible dala. Gardentasuna eta zintzotasuna ardatz izan behar dira. Era berean, herritarren parte-hartzea suspertzea ezinbestekoa da, eta horretarako, zamudioztarrek euren ezinegonak eta proposamenak batzeko guneak sortu behar dira.

Zelango lantaldea izango dozu ondoan, lan-ildoei eta erronkei heltzeko?

Hausnarketa txiki bat egin gurako neuke, gogoratu beharra dago-eta udala hainbat pertsonak osatutako lantalde batek kudeatzen dauala. Beraz, zerrrendaburua bezain garrantzitsuak dira haren atzetik dagozan pertsonak. Gure kasuan, indargune handia da lantaldea, hori esperientzia handiko eta hainbat profiletako lagunek osatzen dabelako. Oso eskertuta nago, eta eurretaz harro.

Hogeita hamaika urteko zamudioz-tarrak ibilpide luzea dau politikagintzan. Industria Ingeniaritza ikasi eban EHUn eta elektronikan aditua da. Gaur egun, Lantegi Batuak dabil beharrean, elektronika eta gizarte-arloa buztartzen dituan lantokian. Gazte-gaztetatik izan dau oso parte-hartze aktiboa herriko kultura- zein kirol-taldeetan. Halan, pelota klubeko eta boxeoko taldeko kidea izan da. Zamudio SDn be ibili da entrenatzaile eta Gazte Asanbladako kide ohia da. Hiru Bat dantza taldeko antolatzaile eta irakasleetako bat da egun.





Maite duzun Bizkaia

**Bizitzak ez
du preziorik.**

*¡Facturek bizitza
baldintzatu ez
diezaguten.*

Bozkatu

ehbildu

**EGINGO
DUGU.**

Pazko jaiez gozatzeko prest

"Herri osoak disfrutatzeko programea landu dogu, edade guztientzako jarduerarak", esan deuskue Kultura Arlotik. "Zamudioko herritarrok gogotsu hartzen doguz jaiak, eta maila oneko programea prestatu dogu. Alboko herrietako bisitariak be ondoetorriak izango dira beti, izan be, Zamudio oraindino ezagutzen ez dabenei esango geunskie etortzeko, me-rezi izango daualako".

Zamudion badagoz jente guztiak maite dituan ekimenak. "Sukalkiak, esaterako, adin desbardineta personak alkarregaz egoteko erea emoten deusku, asteleheneko meza nagusia eta osteko kopaua, musikea, dantzak... Jarduera horreek sano zaintzen doguz, baina nobedadeak eskaintzen be ahalegintzen gara, adibidez, barikuko umeentzako erromeria. Horretaz aparte, zapatuan puzgarriak izango doguz, eta domekan umeentzako tailerrak eta gutiontzako erromeria; igaz antolatu genduan lehenengoz eta izan eban arrakasta ikusita, aurtan be egitea pentsatu dogu".

Jaiak bariku arratsaldean hasiko dira, eta, ohi moduan, txupinazoa bota eta karameluak banatuko dira. Ondoren, Bertoko eta Gazte Elai txistu-taldea aterako dira kalejiran. Umeek Dj Pacok girotutako erromeria gozatu ahalko dabe, eta gauean Gozategi eta Dj Blessive igoko dira agertokira. Zapatua, bestalde, goiz

Maiatzaren 26tik 29ra bitartean Pazko jaiak ospatuko dabez Zamudion. Gustu eta adin guztietako ekintzak antolatu dira, eta zamudioztarrek eta bisitariak gozatu ahalko dabez, besteak beste, musika-saioak, gastronomia-txapelketak eta umeentzako jolasak.



*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*

LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
ALKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaiak)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio

Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

PAZKO JAIAK 2023

MAIATZAREN 26tik 29ra
ZAMUDIO

KALEJIRA, KONTZERTUAK, SUKALKI ETA
TORTILLA TXAPELKETA, UMEENTZAKO
KONTZERTUA, PUZGARRIAK ETA TAILERRAK...

ERDU ETA PARTE HARTU!



Zamudioko Udaletik, jaiak bakean, danok
alkarregaz eta eraso sexista barik
ospatzea itxaroten dogu!



hasiko da, jentetza handia batzen dauan ekitaldietako baten eskutik. Horrela, Bidekoetxe parkean tortilla eta sukalki txapelketak egingo dira, eta umeentzako puzgarriak be ipiniko dira. Gainera, Lagunandre alkarreak azoka solidarioa antolatu dau zapaturako, eta batzen daben dirua Biocrucesi emongo deusie. Tortilla eta sukalki txapelketen sariak eguerdian banatuko dira, eta arratsaldean kontzertua egingo dau Broken Izotzek. Ondoren, jaiak Kultur Etxera eroango da, Hiru Bat dantza-taldeak bertan dantzen agerraldia egingo dau eta. Koralkak be protagonista izango dira zapatu arratsaldean, San Martin eleizan kontzertua egingo dabelako. Zapatuko gaua musikaz beteko dabe Txerri Ugerrak, Maconak eta Urrats taldeek.

Domeka goizean mezea egingo da San Martin eleizan, eta arratsaldean, umeentzako tailerrak Bidekoetxe parkean. Era berean, Los Chimberos taldeak arratsaldea girotuko dau. Astelehena jaietako azken eguna izango da. Goizean mezea egongo da, eta horren ostean, kopaua. Jaiak amaitzeko, karta txapelketea egingo da arratsaldean, Adintsuen Etxean. "Guztiak dira ekitaldi potenteak dira; bakotzak bere publikoa dauka. Parte-hartze polita egoten da ekintza guztietan, eta hori da jai honeen ezaugarri erakargarriena; parte-hartzea, hain zuzen".

Beste aldetik, aipatu beharra dago herriko Umeen Kontseilua hainbat joko-proposamen lantzen dabilela, belaunaldi ezbardinetako herritarrak alkarregaz jolas-



ta daitezcan. Aurreko urteko jaietan be egin eben proposamena eta antolatutako jolasen artean egon ziran sokasaltoak, kanikak, iturriak eta txorromorroa. "Ilusino handiz lan egin dabe Umeen Kontseiluan, igaz antolatu eben 'Betiko Jokoak' saioaren errepikapena egiteko.

Eraso sexistarik gabeko jaien alde

Barikuan eta zapatuan, 22:00etatik 01:00etara, puntu morea ipiniko da jai-gunearen aurrean, herritarrek eraso sexistei aurrea hartu eta aurre egiteko informazioa eta laguntza jaso dagien. Gainera, brigada feministako kideak be ibiliko dira zapi morea jantzita, eta eraso sexista jaso edo ikusiz gero, hareekana jo ahalko da; bestela, 633 918 561 telefono-

zenbakira deitu ahalko da 22:00etatik 10:00etara. Eusko Jaurlaritzaren arreta espezializatuaren zerbitzura ere deitu ahalko da eguneko 24 orduan: 900 840 111; eta komunikatzeko arazorik izanez gero, sms bat bidali 600 123 112 telefonozenbakira. Jaietan eraso matxistarik izanez gero, Zamudioko Udalak eta Zapata Goriak talde feministak adostutako protokoloa ipiniko da martxan, erasoari erantzuna emoteko. Lagundandre alkarreak eta jai-batzordeak be parte hartu eben protokoloaren idazketan. "Herritar eta bisitari guztiek jaietz eta kulturaz gozatzeari itxaroten dogu; horretarako ekin deusagu. Baina, batez be, jaiak bakean igarotzea eta pertsona guztionekiko errespetua nagusitu daitela gurako geunke".

Pikoteo Taberna

KAXOLAK - OLAGARROA
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO
689 213 782

txantxangorri
gozokiak

Txantxangorri 2
Zamudio
678 996 422

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Inbentarioa: 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 94 452 287 - 446@patxi.coop - www.patxi.coop

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tel. / Faxa:
94 452 29 10

RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Maiatzak 26, barikua

-19:00 Txupinazioa eta gozokiak, Sabino Arana plazan.

-Kalejireia, Bertoko taldeagaz eta Gazte Elai txistu-taldeagaz.

-20:00 Dj Paco, umeentzako erromeria, Sabino Arana plazan.

-23:00 Kontzertuak, Sabino Arana plazan: Gozategi + Blessive.

Maiatzak 27, zapatua. Sukalki Eguna

-09:00 Tortilla eta sukalki txapelketan izena emotea, Bidekoetxe parkean.

Jai-egitaraua

-11:00 Umeentzako puzgarriak, Bidekoetxe parkean.

-11:30 Biocrucesen aldeko azoka solidarioa, Lagunandrek antolatua.

-13:30 Tortilla eta sukalki txapelketen sariak banatzea.

-16:00 Broken Izotz, Bidekoetxe parkean.

-18:00 Dantzak, Hiru Bat dantza-taldearen eskutik, Kultura Etxean.

-19:30 Udabarriko kontzertua, San Martin eleizan: Matsorriak (Bilbo), Pozalagua (Ka-

rrantza), Zoli Abesbatza (Zamudio) eta Zamudioko Kamara Korala.

-23:00 Kontzertuak, Sabino Arana plazan: Txerri Ugerrak + Maconak + Urrats.

Maiatzak 28, domeka

-11:00 Mezea, San Martin eleizan.

-17:00 Umeentzako tailerrak, Bidekoetxe parkean.

-18:00 Los Chimberos, Sabino Arana plazan.

Maiatzak 29, astelehena

-11:00 Mezea, San Martin eleizan.

Jarraian, kopaua, eleizpean.

-16:00 Karta txapelketea, Adintsuen Etxean.



Gozategi taldea

**Ileapandegia**
Ana Belén
estetika - solariuma
Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**TOLDOS TXORIERRI**
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak

**TORRELARRAGOITI ind, P2**
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegi ondoan

Errentaren aitortpenak egiten ditugu

944 521 328
asesoriadiza@gmail.com
Talleri, 3 behea
48170 ZAMUDIO

**ASESORIA DIZA**
Fiskala - Laborala - Kontablea


t: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Aranzadiko arkeologoek opari ederra egin ziguten 2022an: Irulegiko eskua. On-do azaldu zuten "sorioneku" famatua non eta nola aurkitu zuten. Eskua Iruñea ondoko kastro batean aurkitu zuten, Irulegin hain zuzen. Baina zer dira kastroak edo oppidumak? Antzinako herrixkak dira, mendi-kaskoetan eraiki ohi zirenak. Haie-taz arituko gara.

Brontze Aroan eraikitzen hasi, eta gehienbat Burdin Aroan zabaldu ziren. Zergatia argi ez egon arren, orduko biztanleak babes handiagoa bilatzen hasi ziren eta herrixkak gero eta altuago eraikitzen zituzten; harresiak eta defentsasistemak ere gero eta altuagoak eta ho-



Arrolako kastroa



Ibilbide proposamena

Hainbat lekutatik hurbildu daiteke Arrolako kastroaraino, baina gu Nabarnizetik hurbilduko gara eta bederatzik kilometroko joan-etorria egingo dugu. Elizatik irten, eta beheko errepideko bi-ribilgunera eta beheago dauden baserrietara joango gara asfaltotik. Han GR98ko markak topatuko ditugu: Urdai-baiko bira. Markei jarraituta, ezkerretara egingo dugu bidezidor batetik. Une batean errepide nagusia gurutzatu, eta hor-

migoizko pista batetik jarraituko dugu. Esan beharra dago, zati hori errepide nagusitik egin daitekeela, baina mendizaleontzat askoz politagoa da GRi jarraituta egitea. Pistatik 700 metro egin ondoren, kontuz ibili beharko dugu: markek ezkerretara egingo dute, baina guk aurrera jarraituko dugu. Hirurehun bat metrora, pista nagusia utzi, eta eskuinetik jarraituko dugu: laster helduko gara Arrolako kastroko ate nagusi ikusgarria.

Ate nagusi ederretik sartuko gara; etxebizitzak izandakoen hondarrak ikusiko ditugu bertan; gotorlekura igoko gara eta bista ederraz gozatuko dugu; eta aurrera jarraituko dugu bidezidorretik. Kontuan hartu kastro barrutik goazela, eta oso garbi ez dagoen arren, eskuinetara harresiak jarraitzen duela. Laster, 300 metrora, hegoaldeko atea ikusiko dugu. Kastrotik atera eta Gaztiburura joan nahi badugu, beheara egin beharko dugu; aldapa gogorra da. Kilometro erdira, eskuinean, baserri batera doan pista ikusiko dugu. Guk, berriz, aurrera jarraituko dugu, eta eskuinetara egiten duen hurrengoa hartu. Beste kilometro erdi bat eginda ailegatuko gara hel-mugara. Gaztiburua alantzean itxita dago ezkerrean. Leku eta harri misterioitsuak topatuko ditugu bertan. Itzultzeko, ia leku beretik egingo dugu hegoaldeko ateraino. Hor eskuinetara egingo dugu; baserri baten ondorengoa pasatuko gara; eta kastroa iparraldetik inguratuko dugu zuhaitz artean. Azken zatia, Nabarnizera heltzeko, errepidetik egingo dugu oraingoan. Domeka goiza bada, ez ahaztu Arratzuko interpretazio-zentroa bisitatzea.

Bolunburuko kastroa Zallan



beak ziren. Euren babespean zeuden, besteak beste, etxeak, animaliak eta hillobiak. Horrela bospasei mende bizi ostean hasi ziren kastroak uzten, hariak eta guztiz abandonatu zituzten arte. Hori Kristo aurreko 100. urtearen inguruan izan zen, erromatarrek agertu eta batera.

Luzaro uste izan da isurialde kantauriarrean, gure inguruan, oso herrixka gotortu gutxi egon direla. Izan ere, orografiak, landaretzak, luraren azidotasunak... ez dute lagundu ez kastroak mantentzen,

ez aurkitzen. Hala ere, hainbat kastroren berri dugu gaur egun, Gipuzkoan zein Bizkaian.

Txorierri bertan Berreagako kastroa dugu, Mungia eta Zamudio artean. Egia esan, han bertan ez da askorik ikusten, baina orain dela hainbat urte indusketa egin zen, eta aurkitutako objektuak eta estela ederrak Bilboko Etnografia Museoan daude. Era berean, baliteke Larrabetzuko Gaztelu auzoan ere kastro bat eraiki izana. Bestalde, Zallako Bolunbu-

ruko kastroa bisitatzea merezi du: harresiko zatirik handiena berreginda dago mendi-tontortxo batean.

Baina baten batek bisita merezi badu, hori Arrolako kastroa da. Marueleza izenez ere ezaguna, Nabarniz eta Arratzu herrien artean dago. Handia da, itzela, eta Urdaibaiko bista ezin hobekak daude bertatik. Kastroko "ate nagusiko" hormak ikusgarriak dira, bihurgunean, bospasei metroko altuerakoak; haien gainean egurrezko hesi bat egon zen ustea dago. Barrura sartu, eta etxeen aztarnak ikusi daitezke. Aurrera jarraituta, hegoaldeko atea topatuko dugu 300 metrora baino gehiagora. Sorpresak ez dira hor amaituko: ate horretatik behera eginez gero, zuzen eta une batean eskuinaldera, Gaztiburua aurkituko dugu kilometro batera. Zer da edo zen leku hori? Bada, ez dago argi. Kastroaren garai berekoa da, eta lau harmaila izan litezkeenek plaza bat inguratzen dute. Batzarretarako erabiltzen zuten? Errituatarako? Ez da beste inon halakorik aurkitu, eta leku misteriotsua da, duda barik. Beste aldetik, Arratzun dago Arrolagune interpretazio-zentro interesgarria.

Euskeraz, ekin eta ekin 35 urtez!

txori tokia

TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA

UDAKO IKASTAROAK (UZTAILEAN ETA IRAILEAN)

NOIZ	HELBURUA	ORDUTEGIA	ORDU KOPURUA	IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA
Uztailaren 3tik 27ra	Maila guztiak	9:00-14:30	90 ordu	Ekainaren 23a
Irailaren 4tik 27ra	Maila guztiak	Egunean 5 ordu	90 ordu	Uztailaren 14a
Irailaren 11tik 22ra	MINTZAMENA B1-B2-C1	Egunean 3 ordu	30 ordu	Uztailaren 15a
Irailaren 11tik 29ra (1)	B1-B2-C1	9:00-12:00 edo 16:00-19:00	45 ordu	Ekainaren 23a

(1) HABEren deialdi itxira joan diren ikasleentzat baino ez. Lehen deialdira aurkeztu diren ikasleak izan behar dira, idatzia edo ahozkoa gainditu ez dutenak; baita lehen deialdira joan ezin izan direnak ere, ekainean maila lortu ez dutelako

Herriko Plaza, 3 - DERIO Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38 euskaltegia@txorierri.eus

t: Joanes Camara, gizarte-langilea

Ganbara Gizarte Irratia da PAI Bitartean zerbitzuaren irratia. Bertan, hiru urte daramatzagu edukiak sortzen, gizartetik kanpo dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen eta komunitatearen arteko harremanaren balioa azpimarratzeko. Hori dela eta, kanpoko eragileengana jo behar izan dugu, gurekin kolaboratu dezaten; haien artean daude elkarteak, fundazioak eta pertsona ezagunak.

Leioako EHU da eragile horietako bat. Orain dela zazpi urte hasi ginen proiektuak elkarrekin partekatzen; zehatz-mehatz, Hezkuntza Fakultatearekin. Monike Gezuraga irakaslearen eskutik, Ganbara Gizarte Irratiarekin kolaboratzeko aukera ematen zaie ikasleei, gizarte-gaiei lotutako *podcast*-a sortu dezaten. Gaur egun arte, besteak beste, gai hauek jorratu dituzte: fe-

minismoa eta M8, etxebizitzarik ez izatea, droga-mendekotasuna eta gazteek jasaten duten prekarietatea. Egitasmoari esker, gure fundazioa ezagutzeko aukera dute, eta gunea sortzen da, gizarte-hezkuntzako ikasleak eta Derioko zentrora egunero etortzen diren pertsonak harremanetan ipintzeko.

Eta egitasmoari esker ere ODS Irratiaren gonbidapena jaso genuen, Leioako unibertsitatean egiten duten irratsaioan parte hartzeko. Bertan, irratia komunitarioa nola eta zertarako sortu genuen kontatu genuen, eta gure esperientzia zein den. Era berean, gure zentrotik pasatu diren ikasleekin izandako harremana baloratu genuen. Guztira, 50 gaztek baino gehiagok kolaboratu dute Ganbara Gizarte Irratian, eta, hortaz, esperientzia eta pasadizo asko ditugu kontatzeko.

Oso goiz entretenigarria eta aberagarria eman genuen Leioan: unibertsitateara ailegatu ginen; ODS Irratiak aire zabalean duen muntaketa ikusi genuen; urduritasuna; gure egitasmoak zuzenean azaldu... Nolanahi ere, irratia-munduan esperientzia dugunez, oso elkarriketa naturala eta interesgarria egin genuen. Hori EHUko Unibertsitatearen webgunean dago entzungai, ODS Irratian. Bestetik, irratiko arduradunek zoriondu gaituzte gure lanagatik, eta gure arteko loturak sendotu genituen, unibertsitatearekin eta ODS Irratiarekin lanean jarraitzeko.



DANONTZAKO IREKITAKO INSTALAZIOAK

GURE MENUA
UDAKO IGERILEKUAK
KAFETEGIA
4 PADEL PISTA
2 PISTA ESTALIAK
2 PISTA ESTALI GABEKOAK

KAFETEGIA
MENUA, KARTA & MENU BEREZIAK
TXULETOI MENUA By Camaleon
LANDUTAKO ARDO KARTA BEREZIA
ETXEKO POSTREAK, Gelati-Gelati!
IZOZKIAK, Ta askoz gehiago...

UDAKO IGERILEKUAK
EKAINAK 3tik IREKITA
ARCIDE GEHIAGO:
info@landabarripadel.es
DANONTZAKO IREKITA:
BAZKIDE KARNETAK,
EGUNEKO SARRERAK,
10 SARRERAKO BONOAK...

PADEL
12:00etatik aurrera
10:30etatik aurrera
(Udako erdiutegiari)

ERRESERBAK: 687 775 683
(Bertan jateko edota enkarguak jasotzeko)

Gaztanatxu Kalea 16, Derio
www.clublandabari.es

GURE
ESKAINTZA
OSO



a: David Bartus
(www.pexels.com)

Loreen hilabetea

t: @txiribita_mundi

Maiatza da loreen hilabetea. Aitzakia ona da lore jangarrien mundu ezezagunera eta liluragarrira hurbiltzeko eta, bide batez, loreez gozatzeko eta gure errezetetan erabiltzeko.

Lore guztiak dira jangarriak? Ez. Loreak gure errezetetan erabili eta jan baino lehen, ziur jakin behar dugu jan daitezkeela. Orokorrean, lorategietan, errepideetan, loradendetan eta mintegietan daudenak ez dira jangarriak eta produktu kimikoak dituzte, adibidez, pestizidak. Edonola ere, ziur ez bagaude, hobe da ez jatea. Era berean, poleni alergia dioten pertsonak kontu handiz ibili behar dute.

Nola bildu eta fresko mantendu? Loreak lorategian badaude, haiek biltzeko unerik onena goiz-goizean da, eguzkiak zuzenean jo baino lehen. Berehala jan ezean, zurtoina uretan sartu behar dugu loreak kontsumitu arte. Hozkailuan gordetzeko, paperezko ahozapi bustiz bildu ditzakegu; horrela astebete ere iraungo dute. Erabili baino lehen, ur freskotan pasatu ditzakegu, eta sukaldeko paperaz sikatu kontu handiz.

Non erosi? Tokiko merkatuetan daude salgai, denda espezializatueta eta gourmet dendetan. Galdetu produktu kimikorik erabilia hazi diren. Egokiena da haziak erostea eta etxean modu organikoan haztea.

Mitxoleta (*papaver rhoeas*): Azkenburukoetan eta entsaladetan erabili ditzakegu haziak eta lorea. Apur bat goxoa da, eta fruitu lehorren antzekoa.

Laranja-lorea (*citrus aurantium e sinensis*): Laranjondoaren lorea da. Perfume-aroma berezia du, eta zapore goxoa. Azkenburukoak eta koktelak egiteko erabili dezakegu. Era berean, hainbat plater usaingozatzeko erabili dezakegu laranja-lorearen ura.

Begonia (*begonia x tuberhybrida, b. semperflorens*): Zapore apur bat garratza du, limoiaren zaporearen antzekoa. Fruta eta entsaladekin batera hartu daiteke.

Hilerril-lilia (*calendula officinalis*): Gomendagarria eguerdian batzea. Hori- edo urre-kolorekoa izan daiteke, edo laranja biziko kolorekoa. Zapore garratza eta

mingotsa du, iltzeak bezala. Ohikoa da infusioetan hartzea eta azkenburukoetan erabiltzea, zapore goxoa areagotzeko eta koloratzeko.

Kalabazina (*curcubita pepo*): Zapore suabe eta goxoa du, eta edozein barazkirekin batera prestatu daiteke. Lore freskoak bete ohi dira.

Hibiskoa (*hibiscus rosa sinnensis*): Masusta gorriak bezala, zapore garratza du eta oso ondo uztartzen da azkenburukoekin eta fruta freskoarekin. Ohikoa da infusioetan erabiltzea, eta oinarritzko osagaia da Jamaikako ura izeneko edaria prestatzeko.

Txiribita edo bitxilorea (*bellis perennis*): Urte osoan hazi daitekeen lorea da. Zapore mingotsa du eta plater askotan erabili daiteke, zuri-kolorekoa denez janariari argitasuna ekartzen dio eta.

Pentsamendua (*viola wittrockiana*): Zapore goxoa du eta ondo uztartzen da era askotako platerekin eta azkenburukoekin.

Arrosa (*rosa spp.*): Lore-hostoek aroma bizia eta zapore goxoa dute; eta lore-hosto ilunagoek, askoz goxoagoa. Entsaladak prestatzeko erabili ditzakegu, txokolateetan eta edariak apaintzeko. Arrosa-urak aroma ematen die azkenburukoiei, eta dotorezia-ukitua.

Tulipa (*tulipa spp.*): Zapore suabe eta goxoa du. Egia esan, plateri ez die oso zapore bizirik ekartzen, eta horregatik, batez ere, platerak apaintzeko erabili ohi da. Lorea ontzizat erabili dezakegu, eta haren barruan izozki-bola bat ipini.

Espero dut gida txiki hau zuretzat baliagarria izatea eta animatu zaitezela lore jangarrien mundu koloretsua eta goxoa probatzera. On egin!



a: Pixabay (www.pexels.com)



t: Xabier Diaz

Itsas errota berriak

Maiatzaren 10an, hasierako onarpenera eman zion Eusko Jaurlaritzak Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari. Plan horretan azaltzen denez, apustu handia egin nahi da eolikoaren alde, eta 2030erako haize-energiatz baliatuta 783 megawatt (MW) ekoizteko gauza izan (2020an 267 MW ekoizten ziren). Horretarako, 30 MW-ko baino gehiagoko zenbait parke eoliko ezartzeko asmoa dute, eta dagoeneko 57 udalerritako mendiguneen aurretiko hautaketa egin dute.

Energia eolikoari etekina ateratzeko beste bide bat dira off-shore plataformak. Kasu honetan, haize-turbinak lurrian jarri beharrean, itsasoan jartzen dira, gas- edo petrolio-plataformen antzera. Mendietan ditugun sorgailuekin aldaratuta, itsasoan haizeak abiadura handiagoa izaten du eta haize-boladak egonkorragoak dira: ondorioz, etekina handiagoa da. Ingurumen-inpaktuari dagokionez, badiru-

di txikiagoa dela, baina ezin da arbuia, eta, adibidez, AZTI badabil hura neurtzeko tresnak eta metodologiak garatzen.

Noski, aerosorgailuak itsasoan jartzea eta lurrian jartzea ez dira gauza bera. Sakonera txikiko lekuetan, plataformak hondoaren gainean eraikitzen dira. Gure kostaldean, berriz, berehala hartzen da sakonera handia, eta hortaz, plataformak egitura flotatzaileetan ipini behar dira, eta kateen bidez beherantz lotu. Beste arazoetako bat da mantentzea: itsasoan egoteak zaildu egiten du egitura horietara hurbiltzea eta sortutako energia elektrikoa lehorrera ekartzea; eta zer esanik ez dago egiturak herdoiltzen direla.

Araoak arazo, gure kostaldean hasi da horrelako egiturekin probak egiten. Hala, demosath prototipoa jadanik dago itsasoan. Prototipo hori da erakunde bi-

ren arteko elkarlanaren emaitza: Bimep, Armintzan dagoen itsas energien ikerketarako plataforma, eta Saitec enpresa. Bestalde, inguruko hainbat enpresa eta erakunde ere egin dute honen aldeko apustua.

2021ean, 35 gigawatt ekoiztuta, off-shore eolikia munduko energia elektrikoaren ekoizpenaren % 0,5 baino ez zen, eta gehiena Txinan eta Europan zegoen. Hala ere, hazkundera gero eta handiagoa da eta espero da 2030erako 10 aldiz handiagoa izatea.

Etorkizun jasangarria nagi badugu, ezin dira energia garbia lortzeko aukerak baztertu. Kasuak aztertu, eta alde onak eta txarrak baloratu beharko dira; eta noski, hori baino arinago gure eta gure gizartearen kontsumoa (norberarena, enpresena, garraioarena...) txikitu.

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 85

639 57 98 48 – 639 58 25 47

aldekone
horts klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai lezagu Facebooken

Salaketa jarri du Lezama Bizirik, herriko baso publikoan “egindako sarraskiagatik”



Lezamako Bizirik Elkarteak jakinarazi duenez, Bizkaiko Foru Aldundia, Lezamako Udala eta basogintzako enpresa bat salatu ditu epaitegian, “guardetxe inguruko baso publikoan egindako sarraskiagatik”. Elkartearen esanetan, hango pinuak eta eukaliptoak mozteko lanetan “ez dira bete orri teknikoko baldintzak, eta ez dira beste espezie batzuk errespetatu”. “Aprobetxamendua bukatuta, basamortua baino ez dago; lehen, 60 urteko baso aberatsa zegoen mendi publiko horretan”.

Duela hilabete batzuk, baso horretako pinuak saldu eta mozteko asmoa adierazi zuen Lezamako Udalak, “bitzita-zikloa agortu zitzaielako”. Lezama Bizirik elkarteak, bestalde, kezkatuta azaldu zen, “lekuan euren kabuz aurrera egin zuten beste espezie batzuk zeudelako, hala nola haritzak eta gaztainondoak”, eta ohar-

tarazi zuen “txikizioa gertatzeko arriskua zegoela”.

Elkartearen hitzetan, Lezamako Udalera eta Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailera jozuten, arraseko mozketa, pisu handiko makineria eta beste jardunbide batzuk erabiltzearen ondorioez ohartarazteko eta mozketa lotutako proposamenak egiteko. Egitasmoaren ingeniari arduradunarekin ere bildu ziren. “Mozketa-lanak hasita eta ohiko metodoak erabiltzen zirela ikusita, Lezamako Udalari zein Aldundiari eskatu genien lanak geldiarazteko, harik eta lurrarekiko, landaretzarekiko eta bertoko zuhaitzekiko begirunetsuagoa zen beste metodoren bat topatu arte. Enpresak onartutako orri teknikoko foru-araua betetzeko ere eskatu genuen, eta bete ezean, kontratua bertan behera uzteko”.

Elkartearen esanetan, basogintza-enpresak zein Aldundiak ez dituzte baldintza-orriko hiru puntu bete. Lehen aprobeitxamendutik kanpo dauden zuhaitzei kalterik ez egiteari lotuta dago; bigarrena, arraste-egiteko moduari; eta hirugarrena, kalterik aurreikusiz gero, pisu handiko makineria erabiltzea debekatzeari. “Tamaina handiko pinuak pisu handiko makineria erabiltzailek arrastatzeak errotik ateratzen ditu lurra higaduratik babesten duten landaretza eta bertoko zuhaitzak. Halaber, pisu handiko makineriaren gurpilek lurrian sakontzen dute, landaretza errotik ateraz, eta moztutako pinuak bertoko zuhaitzen gainean erortzen dira eta lurrera botatzen dituzte, edo euren adarrak apurtu. Arraseko mozketa landaretzan, zuhaitzetan eta animalien habitatean duen eragina defendaezina da. Bestela, egurra aprobetxatzeko, teknika ez egokiak erabiltzeak bizkortzen ditu lurraren higadura eta desertifikazioa”.

Elkarteak gogora ekarri duenez, onura publikoko mendiak arautzen dituen foru-arauaren arabera, baso-jarduketek bat etorri behar dute basoko ondarearen interes ekologiko eta sozialen eta interes ekonomikoen arteko koordinazio-printzipioarekin. Hori bete ezin bada, basoak babestea eta kontserbatzea lehenetsiko dira. “Justizia Administrazioari eskatu diogu Lezamako Udalaren kontrako neurriak hartzeko, mendien jabea delako, emakida jaso zuen zur-enpresaren kontra eta Aldundiko Jasangarritasun eta Ingurune Naturala Sailaren kontra”.

Bestalde, Lezamako Udalak adierazi du ez duela salaketaren berririk izan, eta hura jasotzen duenean, adierazpenak egingo dituela.

**sarraila-denda
Txorierri**
ADITLUK SARRAILAGINTZAN ETA SE GUNTASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@carrajerri.com
www.carrajerri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4. lortza
48160 Deno

**XURREGOTTI
JATETXEA**

Laurgoeta etorbidea, 27
48160 Lolu-Bizkaia
T-Faxo: 94 453 24 40
restauranteurregotti.com



 **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala



Txorierri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31


Atun- eta gerezi-entsalada

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 200 g gerezi
- 400 g atun fresko
- Letxuga gorria eta berdea, espinakak, errukula...
- Tipulin bat
- Piperbeltza
- Oliba-olioa
- Gatza

Prestatzeko era:

Lehenengo eta behin gozagarria prestatuko dugu. Horretarako, gereziak erditik moztuko ditugu eta ontzi batean ipiniko ditugu piperbeltzarekin eta oliba-olioarekin. Beratzen utziko dugu hozkailuan. Plater batean letxugak-eta ipiniko ditugu eta tipulina, juliana eran moztuta, gehituko dugu. Ondoren, atuna egingo dugu zartaginean. Laminatan moztu, eta letxugen gainean ipiniko dugu. Gereziekin egindako gozagarria botako dugu, baita gatza ere.



a: Taryn Elliott (www.pexels.com)

Ahuakate-, antxoa- eta tomate-tostada

Osagaiak (tostada baterako):

- Ogi biribil-xerra bat
- Ahuakate heldu bat
- Antxoa-lata bat
- 4 tomate cherry
- Tipulina

Prestatzeko era:

Ahuakatea erditik moztuko dugu eta hezurra kenduko diogu. Zuritu, eta mamia ontzi batean sakatuko dugu harik eta purea lortzen dugun arte. Nahi izanez gero, gatza, limoi-ura, piperbeltza, olio... bota ahal diogu; bestela, bere horretan utziko dugu. Ogia txigortuko dugu, eta gainean ahuakate-purea ipiniko dugu. Antxoak latatik atera, tomateak dadotan moztu, eta pure gainean jarriko ditugu. Azkenik, tipulina txikituko dugu, eta tostadaren gainetik bota.



a: Mariana Kurnyk (www.pexels.com)

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Enaitz

TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama



SARRIKOLA OGITEGIA


Euskal pastela
Basernko oga
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, 2/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi biei artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.onlykids.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Artadi (Erein), Toti Martínez de Lezea.
Itzultzailea: Miren Arratibel Garmendia-Rosetta Tz.

–Nazioen Tourra

Kazetaritza, identitatea, kirola
(Txalaparta), Xabier Fernandez.

–Azpimarrak (Erein), Nerea Balda San Juan.



LITERATURA: GAZTEAK

–Gazte naturalisten koadernoak:
Basoko sekretuak (Sua Edizioak),
Jonathan Rubines Garcia.

–Anna Kopek eta erreginaren edabea
(Erein), Haritz Larrageta Martínez.

Ilustratzailea: Marko Armspach.

–Narrasean (Sua Edizioak), Katti Olaizola Gabirondo eta Jon Patxi Aiaastui Iturbe. Ilustratzailea: Paul Caballero Barturen.

Sudokua

						5	6
6			7	8	9		
	7						2
3							
9			6		2		
5	8	7		9			
			5				1
				2	8		
	3		9	7		6	

5	9	6	8	1	9	7	4	6	5
1	5	6	3	4	2	8	9	7	1
7	9	4	8	5	6	3	2	1	8
5	8	7	4	2	9	6	1	3	9
9	4	1	5	6	3	2	7	8	6
3	6	2	7	8	1	5	4	9	7
4	7	6	9	3	5	1	8	2	4
9	1	5	2	7	8	9	3	4	6
8	2	3	9	1	4	7	5	6	8



Zure taxi,
Teorissika

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com



Eguneko menuak
Ospakizunak

Arebalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: Leslie Feinbergen *Mari-mutil handi baten bluesa*. Ekainaren 15ean, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean.

Ikuskizunak

Derio


- > Gure Señeak elkartearen aldeko ongintzako dantza-jaialdia. Ekainaren 3an, 18:30ean, udal-frontoian. Kukudantzak antolatua.

Zamudio

- > Zinema. Ekainaren 10ean, 21:00etan, Gaztestazioan.

Larrabetzu

- > Zineklub: Iratxe Fesnedak zuzendutako *Lurralde hotzak* filma, eta zuzendariarekin solasaldia. Ekainaren 20an, 19:00etan, osoko bileren aretoan.
- > Bertsolari gazteen saioa. Ekainaren 25ean, 18:00etan, Hori Bain.
- > Larrabetzuko II. LGTBertso saioa. Ekainaren 29an.



Ikastaroak

Larrabetzu

- > Adin guztientzako ibilbidea. Ekainaren 25ean, 11:00etan, plazan.

Jaiak

Zamudio

- > Pazko jaiak. Maiatzaren 26tik 29ra.
- > Lagatu Eguna. Ekainaren 24an, 12:00etatik aurrera: Carmen Mendiguren pastorala, kelejira, herri-bazkaria, Taberna Ibiltaria eta erromeria.

Larrabetzu

- > San Antonio. Ekainaren 13an.
- > San Joan. Ekainaren 23an.

Kirola

Zamudio

- > Boxeo-emanaldia. Ekainaren 2an, 20:00etan, kiroldegian. Zamudio Boxeo Taldeak antolatua.
- > San Pedroko tiro-saioa. Ekainaren 11n, 09:30etik aurrera. Izena ematea: ekainaren 9ko 15:00ak arte (615 748 298). Txorierri hizua elkarteak antolatua.



Musika

Sondika

- > Udaberriko kontzertua. Ekainaren 2an, 19:45ean, San Joan elizan. Txuma Olagüe abesbatzaren eskutik.

Larrabetzu

- > Domekak Hori Bain: Popatik. Ekainaren 18an, 18:30ean.
- > Maiatza musikala. Ekainaren 20an, 19:00etan, Andra Mari elizan.

Beste batzuk

Zamudio

- > Uda Gazten izena emateko epea: ekainaren 1tik 11ra, Gaztestazioan.
- > Uraren Eguna. Ekainaren 18an, 18:00etan, Gaztestazioan. Izena ematea: ekainaren 16ra arte.
- > San Pedroko tiro-saioa. Ekainaren 11n, 09:30etik aurrera. Izena ematea: ekainaren 9ko 15:00ak arte (615 748 298).



Izen-abizenak: _____

IBAN+Bankuko 20 zenbakiak: _____

Helbidea: _____

e-posta: _____

Telefonoa: _____

Urteko kuota, 40 €: _____

Beste bat: _____

Kupoa bete eta hona bidali:

Aikor! aldizkaria
Aresti kalea 2, behe
48170 – Zamudio

Bestela, mezua bidali:

747 406 561 ☎

Bestela, sartu:

www.aikor.eus

15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOKAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez duguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, balioabatu eta zuzendu ahalko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko dizuz: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

IZAN aikor! lagun



Neurea, geurea.

KATTALIN BARCENA

J Martina taldearen abeslaria

“Ezinbestekoa da Aikor! aldizkariari laguntzea, gazteoi ahotsa ematen digulako eta bertan antolatzen diren ekintzen berri ematen duelako”



AURRERA

IKUSKIZUNAK

www.aurrera.eus
aurrera@aurrera.eus
652 776 054
711 710 366



Edozein ekitaldiren antolatzailea; Umeentzako parkeak, kontzertu txikiak eta handiak, antzerkiak, herri askotako jaien antolakuntza guztia..



Akerbeltz, Lehian, Zutik, Luhartz,
Dj Markelin, Asier Burguete Shows,
The Bond Scott Band-en bulegoa



Megafonia txikiak, soinu eta argi ekipo handiak, zinema pantailak eta led pantaila erraldoiak



Karpak, eszenatokiak, tarimak, txosnak, jaimak, komunak, kamioi eszenatokiak, kamerinoak, aulki eta mahaiaik..

